

BERTSO BERRIAK
GERRA-OSTEAN JARRIAK

BERTSOLARI EGUNA 94

Azala: Arrastalu.
Argazkiak: Carlos Villagran eta Jokin Sorozabal.
Zuzenketak eta aholkuak: Joxean Ormazabal.
Laguntza berezia: Lontxo Aburuza.

© Euskal Herriko Bertsolari Elkarte
Argitaratzailea: KUTXA fundazioa
Inprimaketa: Grafilur, S.A. - Bilbao
Lege-gordailua: BI-2516-93
I.S.S.N.: 84-7173-227-0

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	EHBE	7
HERRI-LITERATURAREN LEKUKOAK	J.M. LEKUONA	11
LUIS REZOLA «TXIMELA» (Bizitza eta bertso-paperak)	EHBE	19
JOSE MANUEL ARRIOLA (Bizitza eta bertso-paperak)	EHBE	33
XALBADOR ZAPIRAIN «ATAÑO» (Bizitza eta bertso-paperak).....	EHBE	43
MANUEL MATXAIN (Bizitza eta bertso-paperak).....	EHBE	59
SEBASTIAN SALABERRIA (Bizitza eta bertso-paperak)	EHBE	77
JOXE AIERBE (Autobiografía) BERTSO-PAPERAK	J. AIERBE	99
INOZENTZIO OLEA (Autobiografía) BERTSO-PAPERAK	I.OLEA	113
JESUS LETE «IBAI-ERTZ» (Bizitza eta bertso-paperak)	EHBE	131
GILLERMO ALBIZU LASA (Bizitza eta bertso-paperak)	EHBE	141
ELKARRIZKETA-TERTULIA	EHBE	155

AURKEZPENA

Bederatzi bertso-paper egile omendu behar ditu aurten Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak, gerra osteko bertso jartzaile belaunaldiaren ordezkari bezala. Baina bederatzi gizon baldin badira ere, bertso paperen garai guzti hura dugu gogoan eta omentzen dugu aurten.

Ez da arrazoirik falta omenaldia antolatzeke orduan gizon hauek kontutan hartzeko; batez ere bertso-paperek bertsolaritzaren kondairan zehar izan duten garrantzia ia uka ezinezkoa delako. Azken 200 urteotan bertsolaritzaren edo bertso munduaren erreferentzia bilakatu da bertso-papera, bere gailur eta beheraldi guztiekin.

Baina gerra osteko urteetan, hainbat arrazoi medio, aktibitate hau erabat desagertzeko zorian egon zela esan daiteke. Eta hemen sartzen ditugu liburu honetako eta aurtengo BERTSOLARI EGUNeko protagonistak.

Garai zailak ziren, 1955 ingurua. Eta tradizio zahar hau, poliki-poliki berreskuratze ahaleginean saiatu ziren hainbat euskalzale eta bertsozale, bapateko bertsolari batzuk ere bai tartean. Han joan ziren azaltzen SEBASTIAN SALABARRIA, INOZENTZIO OLEA, MANUEL MATXAIN, XALBADOR ZAPIRAIN, GILLERMO ALBIZU, JESUS LETE «IBAI-ERTZ», LUIS REZOLA «TXIMELA», JOXE MANUEL ARRIOLA, JOXE AIERBE, e.a. beren lan apal baino garrantzitsuarekin.

Bertso-papereen etenaldia luzeegia izan ez zedin saiatu ziren gizon hauek. Antzinako ohitura den partetik, euskal kulturak ere galtzen zuenez, beraiek eskaini ahal zezaketena eskaini zuten bertsolaritzaren onerako. Eta ez bertsolaritzaren onerako soilik; gure hizkuntza ere laguntza eske zegoen egoera korapilatsu eta latz haietan; eta gure gizon hauek ekin ziotenean, bazekiten ongi bertsolaritzaren alde egindako guztia euskarari ongi zetorkiola.

Ez genuke, halere, gehiegi puztu nahi bertso-paper egile hauek egindako lanak izan zuen garrantzia, baina une haietan, bertso mundua eta euskal giroa hain trantze txarrean zeudelarik, gizon hauen jarrera txalogarri hura azpimarratzeko modukoa da.

Guzti horregatik izan ditu gogoan Bertsolari Elkarteak aurtengo omenaldirako. Baina jakina, badakigu ongi ez zirela bederatzi hauek bakarrik izan. Hor izan dira, esate baterako, Jose M^a Aizpiri eta Jose M^a Arkotxa, Itxas ertzeko hainbat herritako estropadetako giroa betsotan jasoz; Aita Martzel Andrinua, sermoiak bertsotan egiten zituen abadea, Nafarroako Beratarrek etab.

Beste batzuk, berriz, gure artetik betirako joanak ditugu: Segundo Kalonje, Ziriako Andonegi...

Bazter guztiak, edo gehienak behintzat arakatu ondoren, aurkitu dugu bertso-paper egile zerrenda hau. Ez dago talde honetan bapateko bertsolari bezala aritutakorik, eta gerta liteke hutsegiteren bat egin izatea, merezi zuen norbaiten izenik aurkitu ez dugulako edo. Horrela balitz barkamena eskatu beharrean gara.

Eta ohar batekin bukatu nahi genuke aurkezpen hau: Bertsolari Elkarteak idatzitako guztia euskara batuan doakizuela, baina beste guztiena, bakoitzak bidali digun idazkera goitik behera errespetatu dela.

Zorionak guztioi eta esker mila Bertsolari Elkartetik.

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak

Juanjo Uria
Iñaki Agirresarobe
Jokin Sorozabal

HERRI-LITERATURAREN LEKUKOAK

Aurten, bederatzi bertso jartzaile hauei eskainiko zaien omenaldia dela eta, liburu bat prestatu da bederatzion testuez baliaturik. Esanahi ederreko argitalpena dela aitortu behar, lan zabala eta garrantzizkoa gogorarazten digunez, bederatzi euskalariok emaniko fruitu gozo eta ugaria.

Idazle on arteko lotura, axalekoena, gipuzkoarrak izatea da, lurrak, euskalkiak eta, gizarte nahiz kulturak, ematen dieten kidetasun jakina. Baina honetaz gainera, beste antzekotasun bat ere badute beren artean, herri giroko idazle izatetik datorkiena: bertso-jartzaileak dira, eta gerora, hitz-lauzko idazle izatera lerratu direnak, hala nola kazetaritzara, nobelara, oroitzapen-liburuetara, ipuingintzara eta abarretara.

Ezin eta gehiago ditugu estimagarri idazleok, euskalgoari egin dioten zerbitzu oparoa gogoan hartuz gero. Ez dira izan bapateko bertsogintzan herria jantzi dutenak baizik eta isilean loratzen zen hauen bertsozko emaitza. Eskuarki lumaz baliatuz bakarrik eginiko literatur langintza zen hauena.

Hala ere, ez dira estilo idatzizko iskribatzaile soil eta bete-betekoak. Nahiz eta idatziz jardun ohi duten, ahozkotik asko eta asko duen estiloa da berena. Ahotik ahora dabilen hizkeraz baliatzen dira gehienik. Eta usariozko mintzaera gozatzen duen orok, oztoporik gabe jasoko du hauen letrazko ekarria. Gainera, hauek idazten digutena oso hurbil dago herri tradizioak jasotako hainbat eta hainbat pieza eredugarritik.

Altzor preziagarria herritarroi utzi digutena, beren txoko jakin eta jatorrizkoenetik sortua.

Xenpelar Saria-ren giroan

Bapateko bertsolaritzak, 1960tik aurrera, bulko berri bat izan zuen hegoaldean. Berrito iritsi ginen gerraurrean hemen txapelketek utziriko bertso-giro indartsura. Txiki gelditu ziren zinemaretoak leihaketen kokaleku izateko, eta frontoira aldatu ziren txapelketa-emanaldiak. Sona handia zuten orduan bertsolariek: Basarri-Uztapide, Xalbador-Mattin, mugaz bi aldetako aipatuenak izendatze arren; ospe eta aitormen handia zuten hemen-hauetan. Eta Euskaltzaindiaren eskutik, urrats berri bat eman zen antolakuntzan, oraindik ontzat ematen diren zenbait erabaki hartuz eta markatuz. Eta une sozio-politiko hartan, bertsolaritzak euskaldunontzat duen esanahi eta sinbologiagatik, euskaltasunaren eta askatasunaren sinaletzat hartzen zen orduan, gailur eta erantzukizun berrietara jaso izan zelarik.

Ingurugiro honetan, ohartu zen Euskaltzaindia, jendaurreko bertsolaritzak berealdiko arrakasta zeukala herriaren aldetik, baina gero eta itzaliago bizi zela bertso-paperen mundua, txapelketen aurretik hain garrantzitsua izan zen kantu-mota. Gauzak horrela, bertso-jartzaileei ere eragin on bat ematea erabaki zuen akademiak, «Xenpelar Saria» antolatuz. Horrela sortu zen sariketa berri hori, 1961ean aditzera emana eta 1962an sariak banatua, lehenengo aldiz.

Gaur «Bertsolari Elkarteak» omentzen dituen bederatzio, alde batera nahiz bestera, zerikusia badute gogora ekarri dugun «Xenpelar Saria»-rekin, zeharka bederenik. Badira sari hori irabazi zutenak, behin baino gehiagotan gainera, ohorezko laukian ikus daitekeenez. Eta laukian gaurko denak aipatzen ez badira ere, aipaturiko gehienak sartzen dira gaur omendutakoon izen zerrendan. Esan nahi baita, «Xenpelar Saria» ezer baldin bada, hemen omendutako hauen izenek osabeteriko zerbait dela. Hauen bertsozko loramena, neurri batean.

Liburugintzan

Behar bada, talde honek ekarritako aldaketarik nabarienteko bat zera litzateke: paperean jarritako bertsoak jendearengana helarazteko bidea zerbait aldatu izana, helarazte nagusi bezala behintzat. Bederatzio hasi zirenerako, galduxe zegoen bertso-papera, bertso berrien zabalkunderako tresna bezala.

Lehenik, bertso-paperarik ez zegoenez, aldizkarietan argitaratutako bertso-sortak onartu ziren sariketan. Hauen eta bertso-paperen artean, lehen begiradan, alderik ez badago ere, aldizkarietan argitaratuek dinamika berezia dakarte idazlearen eta hartzailearen artean. Ez da orri soltea, aldizkari altxo bat baizik, askotan edergarritzat ipinia, eta kantu zabalketarako baino gehiago entretenigarri polit erabiltzen dena. Etzegoen, ordea, aldizkaritakoak onartu beste biderik, bertso idatzien zabalkunderako.

Agian, salturik handiena liburugintzara pasatu izanean datza. Aspaldiko ohitura zela esan behar, norbaitek bere bertsoez osaturiko liburua plazaratzea. Adibide gisa, Pello Mari Otañoren liburugintza legoke; eta gero, nabariena aipatzekotan, Basarriren emaitza oparoa eta eredugarria. Bide horretatik jo zuten omenduok ere.

Gerraurretik markaturik dator joera hau: Makazagaren moldiztegi eta zabalkunde lanak badute zerikusi liburu-merkatu berriagoan. Xenpelarren bertsoak, Bilintxenak, eta **Txirritaren testamentua** idazlanek erakutsi zuten zernolako harrera izan zezakeen bertsozko liburugintzak handik aurrera. Eta gerrondoan ere, joera bera nabarmendu zen, batez ere baldintza sozialak eta jendearen eskuartearen hobetzen hasi zirenean.

Horrelako joera batek oxta-oxta izaten du indar, erakunderen bat tartean sortzen eta sartzen ez bada. Besteak beste, eta erakunde bakoitzari berea aitortuz, «Auspoa» argitaletxea dugu mugimendu hau oparoenik sustatu duena. Ez bakarrik argitaratze-bide bat eskaintzen zuelako, baizik eta azpiegitura osoa eskaintzen zuelako: bertso bilketa, hauek kopiaatzea, aprobak zuzentzea, zabalkundea eta beste hainbat zerbitzu. Guztia oso beharrezko, garantiaz bideratuko bazen bertsolari hauen eta beste askoren langintza.

Liburu honen egile diren bertsolariok dira liburugintza honen sostengu sendoenetako bat. «Auspoa»-n eta argitaletxe honen inguru izan diren beste argitaletxeetan, agertu digute beren emaitza. Bertso-papera bereziago ote zen nago, ahozkotasanari laguntzeko. Baina liburua, behar bada, memoriari laguntzeko ere bada, baina gehiago da etxean edukitzeko, iturri erabilgarri gertatzeko; eta oroitzapena, testua buruz ikasteko baino gehiago, testu hori non dagoen jakiteko erabili ohi den lagungarria gertatzen da.

Liburu jakingarriak egin zituzten, han eta hemen argitaratutako lanak bilduz. Garrantzi berezia dute gaien aldetik, garaiko ikuspegia, sentiberatasuna eta grina agertzen dizkigutelako. Eta bertsozko aldetik ere badute alde on-askirik, astiro egindako testuak direnez, berritasunaren amorez landuriko testuak, molde biziak, berriak, ongi landuak. Alboan izan zuten lankide plazako bertsolaririk, onenak barne. Baina nahiz eta omenduok plazako kantariak ez izan, zerbitzu bat eskaini zuten, XX. mendeko bertsolaritzaaren ibilpidean hain estimagarri gertatu dena, koblakariaren hurbileko historia ezagunean.

Luberriak lantzen

Aldaketa nahiko nabaria gertatu zen, bertso jartzaileok, besteak beste, literaturako hainbat alor ere lantzen hasi zirenean.

Euskara biziaren auzia zegoen minbera han-hartan. Eta ikusirik bertso-jartzaileok euskararen barrutian bizi zirela batez ere, eta, nahiz eta erdaraz jakin, euskaraz baliatuz zeramatera bizitzaren zatirik nagusia, hara non A. Zavalaren begi zoliak ikusten duen, hitz-lauz ere ongi asko idaz zezeketeela, euskaraz irakurtzeko premiei eta eskakizunei erantzunez, eta euskara bizian gainera. Eta han hasi ziren lanean ipuingintzan, nobelagintzan, biografogintzan, kazetaritzan, etnografi langintzan, eta beste zenbait alorretan, bakoitzaren dohaien arabera.

Gaur omendutako sailekoek, batzuek nobelagintza herrikoia bizkortu, eraberritu eta aberastu dute. Badira bederatziotan idazle sarituak, idazle ugariak, euskal eleberrigintza eguneratu eta jantzi dutenak. Talde honetan daude, baita ere, biografi eta ohiturak idazteko mailan beren prosagintzaz nabarmendu direnak, Uztapidek bere bizitzako pasadizuak idazterakoan zabalduko bidetik aurrera jo dutenak. Eta hor daude, baita ere, kazetaritzara lerratu direnak, aldiari-aldiari beren artikuluak argitaratzen dituztenak, lan honetan maisu izan duten Basarri jarraituz.

Bertsolaria ohituta dago estrofitan ari izaten, bere ekarria zintzur estutik pasaraziz, eta testugintza zaila moldatuz. Baina prosagintzan hasterakoan, errazago egiten zaio jostun-lana, gauzak adieraztea. Baina ez hori bakarrik. Bederatziok, lekuko ezin hobekak direla herri-literaturako hainbat alorretan. Berena dute euskal hitzaren dohaia, inork baino hobeto dakizkitez kontu eta ipuin zaharren gai harrigarri eta jakingarriak. Eta esaldi aberats eta bikainen jabe ere badira izan, gauzak argi eta garbi, txukun eta egoki esateko garaian. Egia esan, euskaldun herritarrak ogi berria bezain gustora dastatzen ditu molde artesauan erre dizkiguten gutarteko gauzen adierazpen estilodun eta jatorrak.

Erdi-ahozkotasuna

Omenduon ekarria bere mugabarruan ezartzeko, bada beste alderdi bat hemen aipatu beharrekoa: erdi-ahozkotasuna dela berauek dakarten estiloa. Ez ahozkoa soilik, idazkera tresna moduan erabiltzen dutenez; eta ez da idatzizkoa ere, sortzen dutenaren iturria, dinamika eta ederra ahozkotasun-mundutik hartzen dutenez.

Bertso-paperetara itzuliz, eta erdi-ahozkotasunaren haritik, aipa dezakegu bertso-idazteak ekar ditzakeen mesedeak bertsolaritzaren barre-bizitzarako. Lehenik transmisio eta helaraztea ugaltzen da eta zehazten, lekuak eta garaiak gainditzen dira eta ahozko altxorra aberasten. Gero, testuen erabilkera pedagogikoa errazten du idazteak, buruz ikasi beharrik ez du, xehetasunetan irabazten du, bertso bakarra izaten da edizio kritikoa eginez gero; nahi adina aldiz errepika daiteke. Autore izateak garrantzi berezia hartzen du: idazle izatera lerratzen da artista, interpretari eta gordailu bizi izatera baino gehiago; eta autoretzaren silua hartzen du testuak, honen irakurkeran egilearen tipologiak ere aginduz. Gainera, testugintza patxarago, landuago eta zehatzago moldatu bat zabaltzeko egokiera ematen dio ordurarte ahozkoa zen bertsolariari, posibilitate berriak eskuratuz, legeak zehatzago betetzeko, gaiak mugonez aberasteko, tradizio kultistago baten argiak eta sentiberatasunak bereganatzeko.

Zerbait berria da bertso-paperak bertsolaritzari dakarkiona, eta antzeko zerbait omenduok ere eskaini diotena. Prezeptiba aldaketak lirarteke hemen aipatu beharrekoak. Gaiaren lagungarri, aipa dezadan zerbait axaleko.

Plazako bertsolariak izan dira bertso idatzietan ere nolerebaiteko aginpidea eta eragina izan dutenak. Zenbait izen aipatze hutsak egiaztatzen du irizpide hau, Xalbador, Lasarte eta Amuriza lekuko jartzea aski zaigularik ziurtagiri bezala. Hala ere, gaur omenduok bertso idatzietan lehentasun bat markatzen dute, bai irakurleen onarpenean, bai bertso-jartzaileen arteko lehia, eta dinamika baten sorkuntzan. Plazako bertsolariek, berek bakarrik, bete ez zezaketen arloa bete dute, bertsogintza oro har aberastuz. Eta gainera, maila bat ematen zaio bertso idatzien sailari, bertsoak jartzeko teknika eta gaiak aurrerakada bat egiten dutela, garai berrien arabera egin ere. Bide bat ideki dute, eta bulko bat eman ere bai, gerrondoko bertso idazkera berria sustatuz eta aurrera eramanez.

Bailarako bertsolaria

Azkenik, ez genuke ahaztu nahi, usuarioari atxekiz, badirela omenduon sailean bailarako bertso-lana bete izan duten bertso-jartzaileak. Egia da, «Xenpelar Saria»-k Euskal Herri osoa zuela hartzaile, eta herrialde osoaren kantu-zerbitzua zaintzen zela bereziki. Baina orduan ere, gaur egun hala den bezala, idazleok herri jakin baten bizitzatik eta bizitzarentzat eskaintzen zuten beren bertsozko emaitza.

Interes zabala ere baduten herriko gertakariak kontuan hartuz, mamitzen dute aldian-aldiko kantugintza: jai handitako oles eta zoriontzeak, herriak bereak dituen irizpideak finkatzeko ahaleginak, istorio eta zelebrekeriak, mila modutako kronikak, bertsolarien eta beren ingurukoaren pozak eta nekeak.

Aspaldidanik datozkigu herri jakinetako bertsolari hauek: Jose Bizente Etxegarai Donostian, «Zilarginak» deiturikoak Durangon, Xenpelar Erreterian, eta hainbat bailaretako bertsolari zerbitzu ederra egiten dutenak, bai beren herriarekiko, bai beren ingurunearekiko.

Iduri luke, bertso-jartzaileak, Euskal Herri osoari zuzentzen zaionean, landuagoak eta arrasa zabalagokoak egiten dituela bere lanak. Adibide modura aipa dezakegu, Xenpelarrek gerrari jarritako bertsoak, «Iya guriak egin du» izen burua daramatenak, goragoko arnasa hartzen duela, bailararen eta batez ere bere aldiaren muga gaindituz, denei eta gerora begira hitzegiten duenean.

Omendutako hauetan badira lar partikularragoak egin dituztenak, lokalismo gehiagoz osatuak. Baina gehienak Euskal Herri osoaren ikuspegitik mintzatu izan dira. Eta bailarako esparruan jardun izan dutenek ere, eskertzeko lana egin dute, bertsoa festabide bihurtuz, umore iturri baliatuz, lekuko historiaren testigutza utziz, etikazko ikasbidetza zabalduz, herriarekin irri eta negar eginez.

Azkena

Aipatutakoak aipatu ondoren, zenbait hari nagusi marka ditzakegula uste dugu omenduon, eta oroigarri gisa zabaltzen den liburu honen luze-zabala eta balioa hitz gutxitan ager ditzagun.

Lurralde mugatuaz aritu gaituzu, Gipuzkoaz; eta denboraldi jakinaz, erregimen estuko azken hamabost urteetaz. Baina, mugak muga, lan bikaina da utzi digutena: liburuetan mamiturik dago, eta bertsolaritza aberasteaz gain, honen mugabarrutik ateratzen dira, beste hainbat literatur alorretara hedatuz eta zabalduz. Gehiago oraindik, hauetako zenbaitek ohore haundiagoa izango du bertsolaritzatik kanpo barruan baino.

Idazteko tradizio bati eutsi diote, estilo idatzia baino areago erdiahozkotasuna landuz. Eta aipagarri ere badena, bertso-paperak baztertu zirenean, aldizkarietan idatziz, eta, aipagarriago dena, liburugintzari ekinez beren bertsozko zabalkundearen arituz.

Bertsolaritzari egin dioten mesedetako bat izan da, giro bat sortu izana eta lehia bat ere bai, plazako bertsolari onenetakoak bertsoak jartzen has zitezten. Eta jakina da, honek zerikusia izan zuela zenbaitzuren plazako bertsogintzan; eta bertsolari zenbiatek bere iritziak eta ikusmoldeak, bere bizitzako berriak, eman zituela liburu-sarreretan, herri-literaturaren zerbitzurako eta bertsozaleen jakinerako eman ere.

Eta aipatu gabe ezin guk utzi bailarako bertsogintzan, usuarioari jarraituz aritu izan diren lekukoak, bertsoen funtzionaltasun bati bide eman diotenak, berek bizi diren gizarte euskaldunetan.

Lan zabal eta txukuna da hemen eskertzen dena, eta omenaldi eran saritzen dena. Agian lan handiegia da, egun baten barruan, eta denak batera bilduz, aitortu nahi litzatekeena. Baina, mugak muga, on zen bertsozaleak kontuan hartzea, gure bertsolaritzak idazle hauekin duen zorra, eta esker ona agertzeko duen eginkizun zorrotza bezain gozoa. Hauek baitira, era berezian herri-literaturaren lekukoak.

Juan Mari LEKUONA

LUIS REZOLA ARANA «TXIMELA»

Bertso-jartzaile hau 1914ko abuztuaren 24ean Tolosan jaio zen, «Tximela» ezizenez beti ezagunago gertatu da bera, familia eta belaunaldi askotako aitonak bezala. Izaskungo aitona tximel-tximel bat izan omen zen lehenengo «Tximela», eta haren ondorengoak «Tximela» edo «Tximelatarrak» dira gaur egunean ere.

Aita, Tolosako enterradore edo lurperatzailea zen. Lehenengo, Arrameleko kanposantu zaharrean, eta ondoren, San Blasko kanposantu berrian. Berri hau egin zenean, Luisek urte bete zuen, eta kanposantuaren ondoan enterradorearentzat egin zuten etxera aldatu zen familia osoa. Garai hartan, «Tximelaren baratza» esan ohi zioten tolosarrek kanposantuari-

Aita gazterik hil zitzaion, hamabi urte zituela, eta hurrengo urtean, berriro Tolosara jeitsi zen familia bizitzera. Bere ikasketak Tolosako Eskolapioetan egin zituen.

Hamairu urterekin Tolosako Arrameleko «Tornillería Goñi» izeneko fabrikari lanean hasi zen. Hamabost urterekin, Tolosako «Tornillería Zuaznabar» zeneko lantegian. Lanetik atera ondoren, bukatu ez zituen ikasketak egitera joaten zen. Hemeretzi urterekin berriz, Adunako «Talleres Aduna» lantegira aldatu zen.

Gerra zibila hasi zenean, Eusko Gudarostean sartu zen: lehenengo Loiolako batailoian eta ondoren, Jagi-Jagikoek bi batailoi sortu zituztenez, «Zergatik ez» eta «Lehenago hil», hain zuzen bigarrenengo honetara aldatu zen. Berehala hogeita bi urterekin kapitain izendatu zuten. Gipuzkoa galdu eta gero, Gorbea, Oitz, Gernika eta Bilbon ibili zen gehienbat.

1937. urteko abuztuan, preso erori zen italiarren menpean. Aurreneko hamabost egunetan, Laredon eduki zuten. Handik Santoñara, Duesoko espetxera eraman eta «Juicio Sumarísimo» eginez epaitu zuten. Honako epai hau ezarri zioten: «Condenado a la pena de Reclusión perpetua por motivo de adhesión a la rebelión».

Hiru urte hainbat espetxetan igaro ondoren, 1940ko abuztuaren 12an kaleratu zuten. Lehenagoko lantokira itzulia zen baina paper batzu banatu zituela medio, Ondarretako espetxera eraman zuten. 1948. urtean beste bi lagunekin Uzturreko gailurrean ikurrina ipini zuen. Urte honetan Adunako Garagartza baserriko Ramona Zabalarekin ezkondu eta Billabonara bizitzera joan zen. Ezkontza honetatik bi seme eduki ditu: Modesto 1949. urtean eta Ramon 1952.ean.

Gerra osteko giro beltz horretan lan ikaragarria burutu zuen bertso-gintzan, hain zuzen 50. hamarkadatik aurrera «Zeruko Argia» eta «Príncipe de Viana» aldizkarietara hainbat bertso-paper bidali baitzituen, baina bere lanik garrantzitsuenak Etor eta Auspoa argialetxeen laguntzaz kaleratutako bi liburuxkak dira; «Bakardadeko ametsak I eta II» (Auspoa 204-205).

Izaskungo amaren oñetan

Tolosako klinikan Izaskungo Amaren irudi bat dago eskegita. Bere koronazio atarian, Tximelak bertsoak jarri zizkion eta inprentatu ondoren, sei egunetan sei mila ale saldu omen ziren.

Azaldu zifan «Nun nago?» esanaz,
zeruak zizun erantzu,
ango agindua bete zenduan,
gutziz ona baizera zu!
Amatxo, ai zer goxoa zeran
eta biotzez beratsu,
zure oñetan belaunikatuz
jakinduria ekatzu.

Ezaguera dedan ezkeru
daukat zuregantasuna,
orreatikan goizero dizut
eskatzen gauz beartsuna.
Otoitz ondoren apatx egin det,
auxen da goxotasuna,
urrearekin ez da ordaintzen
zure gurasotasuna.

Zuretzat onak geran semeak
ikusi zazu zer degun,
ni beintzat pozik nator zugana,
ain zaude goxo ta legun.
Apaingarritzat ekarri dizut
sortatxo bat lore eskun,
zer gutxiago egin gentzake
maite degunak Izaskun?

Lenengo etorri zifaneko lur
mugatsu orren jabeak
zuretzat zuten sinismen ona,
beste txarkeri gabeak.
Guk ere aien kutsu apurrak
badaduzkagu gordeak,
bañan alare oraindik izan
bear genduke obeak.

Zazpi gizaldi bete xamartuk
esan oi dute dirala,
txillar loretsu, arkaitz babeski,
ortxe azaldu ziñala.
Geroztik beti egin diozu
sorterriari itzala,
aurrera ere Alguztidunak
gurekin gorde zaitzala.

Eun da ogei ta zazpi urte dira
ermit ori erre zala,
berritu arren berriz erre zan
zure estalpetxo apala.
Irugarrena berria dezu
merezi bezin jaukala,
au da semea txit bizitzea
Ama gogoan daukala.

Zure kondaira dana ez dakit,
entzunda nago zerbaitu,
bi bider sua etxe barruan
bañan etziñan erre zu.
Nun estalpetu etzekizula
gelditu ziñan beartsu,
berria egin arte Tolosan
elizan egon ziñan zu.

Erri guzia errukitu zan
da berria egin zuten,
berriro gora pozik igo zan
negarrez jetxi zana len.
Berriz su artu edo mendia
erditik ez bada austen,
zillar utsa dun koroï eder bat
jarriko dizute aurten.

Noiz koronatuko duten euki
zazute gogoangarri:
agorrillaren bigarren jaia
egun ori dute jarri.
Gipuzkoako guraso onak,
zeon sendiak ekarri,
beso zabalik Ama Birjiña
dago ta ongi etorri.

Zure izena goratu duna
bikaio dago Tolosan,
oso makala ez da gizona,
Durangotik etorri zan.
Geroztik esan izandu zuan
itz-lekutikan elizan:
«Amarentzako oroitzen ez dan
semea nola leike izan?».

Len eunetarik larogei zeuden
zuretza oso aztuta,
da orain eunetarik berrogei
zure Kofradin sartuta.
Bikaio jaunak lan asko egin du
guzia gogoz artuta,
amaika etxe txiro jaso du
aberatsari kenduta.

Ez nuke iñor gogor artu nai,
onez nai det adierazi,
erriko artzai zintzoarentzat
milla zorion lenbizi.
Beraren bidez egin dalako
len txertatua itxasi,
erri guziko txalo beroak
ark ez al ditu merezi?

Ai, tolosarrak, nere olerkik
entzungo baziñuzteke,
biotz-kilima bezelako gauz
bat senti lezazuteke.
Gaur gizon onek eskatzen duna
emango bazenduteke,
Izaskunera bide berria
laister izango genduke.

Aspalditxotik nola dagoan
daduzkagunak oroitzak,
zarra berrituko luke noski
nekeak eta otoitzak.
Gure Amatzok bidean dauzkan
luizi-lur eta arkaitzak
kenduko dira, laguntza pixkat
jartzen badegu bakoitzak.

Gu langilleak esku-lana ta
txanpona jarri aberatsak,
len ere noski etzitun lertzen
arriak oien beatzak.
Nagusi jaunak, etzaitzela
emateko egon otzak,
dirua simaur biurto baño len
aska ditzazute poltsak.

Gora emalle on zeratenak
ta erriko jauntxo azkarrak!
Gora Amaren babes eztitan
oitu zeraten luistarrak!
Nolatan zaindu badakizute,
etzerate seme txarrak,
ori bear da pakean bizi
nai badegu luditarrak.

Alabak berriz egin diote

Amari mantoi berriya,
orra guziak alkar artuta
polita erregaliya.
Oinbeste urtetan erdi aztuta
zegoan Ama Birgiña,
orain nolana erregaloak;
ez al da gauz atsegiña?

Nere asmoa zertara dagon
garbi asko dizut ager,
zure laguntza izan ez bazan
aixa egingo nuan ler.
Zuk maaletxoan daukazun Aurra
zaintzen dezu beti eder,
nik ere berdin zainduko zaitut,
agur, Ama, ta milla esker!

Tximela, 1949

Gorbea nork gureganatu?

«Padura» batailoikoak gora igo baino lehen, «Tximela» han zegoen bere gudariekin. Espainiako bandera kendu eta ikurriña jarri zuena, gudari zintzo bat izan zen: JOXE GOENAGA, «Lehenago-hil» batailoiko tenientea. Eztabaida hori argituz honako bertso bi idatzi zituen:

Aldizka odol txar egiten da
nere buruan, nai ez ta,
gaur da betiko kenduko diet
batzuek daukaten kezka.
Gorbea nolaz artu genduan
etorri zaizkit galdezka,
bi talde giñan sartu giñanak
atzeti eta saieska,
«Padura-koa» bakarrik zala
gezur bat besterik ezta!

Gezurtik dira, naiz anai izan
emen nere erantzuna:
«Lenago-il»-ko gudarik giñan
gurutze artu genduna.
Euskadik jakin dezala ongi
au da erabakizuna:
Joxe Goenaga izandu zala
ikurriña jarri zuna.

Tximela, 1937

Perretxikuak

«Tximela» oso mendizale eta perretxikozalea izan da beti. Bertso sail honetan, garbi nabari da gai horretaz zenbat dakien.

San Blasen jaio ta azia naiz
etxe atzean basoa,
oiñez ikasi nuan orduko
perretxikuta pausoa
ordutan antxen bildu ta bildu
atozka amatxo goxoa,
etzaitut aztu, goiko pagadi
ain ziñan toki goxoa!

Udaberrian azaltzen zera
aurrena zu, xixa txuri,
zenbat maitasun usai egiñaz
egiten dizuten zuri,
biltzaile danon ameslari
osin tarteko eder ori,
neguan ere antxen zaudela
iruditzen zait neri.

Zu zera, xixa, ondo alare
perretxikun erregina,
beste janari asko bezela
lur goxo beltzak egiña.
Baserritarrak zerala dio
sasi berriko sorgiña,
tokiz aldatzen egiten dezu
beintzat naiko alegiña.

Jatorriz margo zuria dezu
otzak zaitula gorritzen,
tapakitako inoiz elurra
ta ez naiz batere arritzen.
Ondoreneko ebi epelak
berriro zaitu txuxpertzen,
giro guzitan ederra zera
usaia etzaizu galtzen.

Xixa erregin, kuletro errege
aitortu bear egitan,
oien ondoren gibelurdiña
ta unto beltza kapitana.
Laukote ori baño oberik
ez dago nere begitan,
Katalan jana ona izan arren
ez naiz sartzen piñuritan.

Kuletroa da ollo-arrautza
dirudiena kolorez,
toki jakiñetan jaiotzen da
baña ugari beñerez.
Lertzen denean txar edo ona dan
ezagututzen da errez,
pinportarikan ez baldin badu
jateke ez egon bildurrez.

Janari onen berri oraindik
ba ote daki gizonak?
Deskuido latzak gertatzen dira

bilduagatik ontxonak.
Ez det nahi iñor dardar jartzerik
baizik entzun esan onak,
perretxikurik ez dezala jan
gibeletikan dagoenak.

Xixa oria azpi irikia
-tartean bada itxia-,
jaten badezu, gaitz egin baietz
egon zindezke etsia.
Lagun bat badet iltzen egona
ta orra aren iritzia:
«Perretxikua nai duanantzat
aurrena nere bizia» .

Biltzaile onak ekartzen ditu
zabalak eta extuak,
egun bikoak, laukoak berdin
arraia bezin prexkuak.
Zertan alperrik unto belarrez
goraño bete xextuak?
Gutxi ta onak atsegin ditut
bestentzako arrixkuak.

Arrubioak kutsututako
unto ala gibelurdin,
garbitu gabe beñere ez jarri
tartera edo zartagin,
koska nabarmen kutsu gordean
dana kendutzen alegin,
nai ez badezu beneno bidez
mundu ontatik aldegin.

Arrubioa ez dakianak
zer dan nua esatera:
margo illuna, arrai orixkak
muskarraren ibillera,
ur geldi edo zingira maite
dituna geina da bera,
sargoi danean alper motela
ez du ederra tankera.

Biltzeko egoaldi txarrenak dira
terral, ebi ta ekaitz laño,
giro onari ez diou noski
asko begiratzen baño,
jateko berdin-berdiñak dira
bete egin bear goraño,
asto-tankera badegu bañan
etzagun euki ortaño.

Oitu gaitezen gogorrak biltzen
usteltzen utzi bigunak,
naiz onak izan beñere ez jaso
intzak saretzen ditunak.

Bestela ere etortzen dira
nai gabe ordu ilunak,
arnasa kentzea ohea da
amasa eman zigunak.

Gizona bezin azkarra degu
ezagutuzten ardia,
txarra utzi ta ona jaten du
sasoikoa ta garbia.
Ez du bareak bezela uzten
alperrik galduta erdia,
tontogoa da unto gañera
pixa egiten dun erbia.

Kuletro geina ateratzen da
Naparroako partean,
Illarratzutik araxeago
urrill-untoen tartean.
Ogeitik gora bildua nago
guziak toki batean,
«au dek, au, sendi zoragarriaria!»
esanaz nere artean.

Poz ederrikan eman zidaten
beste batean untuak,
San Mariñetan Aduna mendin
urki azpian billatuak.
Sei ziran danak, pisatu zuten
txit lau kilo goratuak,
etziran txarrak jai goiz artako
jendean begiratuak.

Jai degunean joaten gera
pozikan eldurik goizai,
eiztaria bezala askotan
goian noiz argituko zai.
Kalean berriz gelditzen dira
ez dakit zenbat tripazai,
gu noiz baño noiz andik jetxiko
baxoerdi eraten lasai.

Kondairak ez du ezer esaten
onela degu entzuna:
perretxikua izandu zala
Iparragirre il zuna.
Bear bezela ez dakigu ta
neroni nago mintsuna,
ura baizan bat, ura alakoa
beñere il bear etzuna.

Aranzadiko talde jatorrak
orain bi urte Tolosan,
badakizute klase guzien
txapelketa bat nola zan.
Biltzaile geinok an bildu giñan
ta onela ziguten esan:
«Perretxikua mendikoa da

ta kontu andia izan!»

Orra ogei betso berri nerek
izena dute laukuak,
aspertu naiz ta lotara noa
bukatu dira gaurkuak.
Biotz-biotzez opa dizute
Tolosako San Blaskuak,
guziori on dagizutela
aurtengo perretxikuak.

Tximela,1965

JOXE MANUEL ARRIOLA

1916ko Ekainaren 16an Deba herriko «Goikoetxe» baserrian jaio zen. Garai hartan eskolan lehenbiziko hizkiak eta kristau ikasbidea euskaraz ikasi ondoren, oinarrizko ikasketak erdaraz burutu zituen. Baserrian ere lana gogor egin behar zen. Hainbat zezen bazituzten eta herriko jaietan hainbat aldiz sokamuturra franko antolatu zituzten beraien abereekin.

20 urte zituelarik, gerrak bete-betean harrapatu zuen. Afrika aldera joatea tokatu zitzaion. Bi hilabete igaro ondoren, Burgete eta Aragoiko fronteetan ibili zen bertan hainbat zauri gorputzean utzi zizkiotelarik.

Gudak utzi zion elbarritasunengatik bere lanpostua aukeran jarri zioten eta Arrasatera udaltzain edo kalezain etorri zen 1939. urtean.

Garai hartan herriak 8.600 biztanle zituen eta Joxe Manuelen lehen soldata 250 peztatakoa izan zen. Honelako lantxo batzu izaten zituen: mutikoak beti bezala bihurriak zirenez, galerazita zeuden tokietan pelotan ibiltzen zirenean, leku haietara joan behar izaten zuen, batez ere eliza edo Ospitaleko atarira. Etxez etxe errezihoak kobratzen ere ibiltzen zen jendea diruz urri aurkitu arren. Kanean gaizki utzita zeuden astoengatik bere jabeei isuna ezarri behar izaten zien. Etxez-etxe esnea eta barazkiak banatzen ibiltzen ziren etxeko andreek ez zuten beti begi onez ikusiko, baina hau ere bere gainetik zeudenak agintzen zien.

Udaltzainaz aparte, bertso jartzaile aparta izan dugu eta hainbat aldizkari eta egunkaritan argitaratu ditu hainbat urtetan.

Garai hartan herriko Frai Rufino apaiza Vespa-n karnetik gabe ibiltzen zen. Hau oharturik, isuna ipini ordeztu motorrean bertso bat idatzirik jartzea egokiago iruditu zitzaion:

Frantziskotarrik orrelakorik
zanik ez nuan pentsatzen,
bere jantzien konfiantzara
karnet gabe konduzitzen,
gizonak jarri ditun legeak
alde batera baztertzen,
Jaunak jarriak era horretan
erreza al da betetzen?.

Kalezaiñak

Kalezain baidamazkit

ogeitamar urte,
bertsuak eratzeko
esaten didate.
Urtiak gauza asko
erakusten dute,
len baiño okerrago
egin ez banaute.

Aurretik izanikan
basarritar utsa,
orduak etzan ezer
orko kale-zaintza
Zortzi ordu sartzia
etzan oso gaitza,
orain orduak baño
nekezo gabiltza.

Badakit nola dion
lengo esaeriak:
«arrapatuko dula
dabilen bidiak».
Neguak gauz onik ez
gutxigo udiak,
kalezainaren kontra
baidabiltza biak.

Orduko zeregiñak
ezer etziraten,
baña laister asi ziran
gaiztuak izaten.
Nagusien gogorik
ez nuan egiten,
gogor egin bear da
esaten ziraten.

Esanak egin naian
biotzez artuta,
iñoiz agertuta naiz
erdi erotuta,
konfiantza osuan
aurrera sartuta,
gero irten eziñik
bakarrik galduta.

Oraintsu arte ia
egiten zan lana,
animalien bitartez
ia kasik dana.
Tresnak zauzkatena
esaten zutena:
«zikiña besterikan
eztakarte ona».

Orain eztakarte
usain zikiñikan,
kendu dira astuak
kaleetatikan.
Bañan eztago asko
gauza oberikan,

automobillak ezto
nun kabiturikan.

Baldin bi badijoaz
reglak dakitenak,
amar bai dijoazte
ez dakitzatenak.
Gañera beti azkar
jun bear dutenak,
errukarriak dira
oien ondorenak.

Astuak zeregiñak
ematen zituzten,
baiña orain okerro
gerade ikusten.
Tresnak kabitu ezinda
maiz dira ibiltzen,
gero gertatzen dana
ezta errez esaten.

Beti badira illak
eta zaurituak,
gero bear dituzte
juez da medikuak.
Bideak ireteko
bai mekanikuak,
eraman detzatezen
tresna puskatuak.

Bitartean or dabil
berriz oñezkoa,
orrenzat entzuna det
dei bat premizkoa.
Asko ta askontzako
bai bearrezkoa,
eztala ta izango
nago neu naikoa.

Gaitz bat oso okerra
ibiltzen jakin ez,
baña okerragoa
jakiterik nai ez.
Besteren zeregiñak
ondo jakin berez,
baña norbereenak
erakutsita ere ez.

Ume baten ezbearra
arturik bitarte,
periodikotikan
aritu didate,
«La Voz-eko» idazlea
gure Azkarate,
ez det uste gezurrik
jarri dunik bate.
Ibiltzen erakutsi

ez da orain arte,
umeen gurasoak
zer iten dezute?
Ezin erakutsi zeuek
ez bai dakizute,
maixu eta maestrak
zer deizkiotzute?

**J.M. Arriola,
1968ko Apirila**

Gure gazteek euskerarik ez dute aberastuko

Ala bearrez gure
lurrean ainbeste,
euskaldunengandikan
sortutako gazte.
Ez dakit eurak ala
dutenikan uste,
baña izkuntzarekin
zorrak badituzte.

Eurari lotsagarri
egiten zaiete,
euren izkuntzarik ez
jakitea bate.
Baña jakin ezker
zerbait nolabaite,
euskera sendotzeko
kezkarik ez dute.

Gazteak edonun da
edonoiz alkarte,
erdera barra-barra
erabiltzen dute.
Amak esan: «Euskeraz
itzegin zazute»,
aguro erantzuna:
«Zu, ixildu zaitte».

Orrela ari gera
ez dakit noiz arte,
gero bete-bearrak
nola ondo bete?
Etzan ez geratuko
beste onenbeste,
izanikan euskera
bear ainbat maite.

Gaitz txarrak zapaltzeak
ez genezke poztu,
euskera gaxotua
onla ezin piztu,
il zorian ez badago
ere, dabil estu,
baña txikia dala

beste errurik ez du
Erbestekoak izan
oi duten antzera
kapritxotzat bakarrik
arturik euskera,
irixten ez bada ere
zearo galtzera,
aurrera bearrean
jungo da atzera.

Zorionez Jainkoak
emana guretzat,
euskaldunok euskera
danok degu ontzat,
txikia da eta
ez artutzen aintzat,
ez daigun iltzen utzi
orregatik beintzat.

Maitasun guztiakin
eginik alegin,
ez gaitezen jokatu
iñoiz erdi arin,
baldin albalitzake
aundiago egin,
jarritako mugarik
iñun ez du berdin.

Gai onetzaz mintzatzen
ni ez naiz lenena,
ta nekez izango naiz
gañera azkena.
Onenara jota ere
esango dutena:
«Gixajo lelu orrek
esaik nai dekena».

Ezer ere ez dago
kostatzen ez danik,
gai onetan ez degu
euskaldunak lanik.
Jainkoak guretzako
diguna emanik,
nola ez pozik gorde
polita izanik?

**J.M. Arriola,
1971ko Iraila**

Bataio eguna

Billobatxoa zure aitaitak
zuzen nai dizu egin itz,
mundu ontara etorri eta

aurtxoa zer moduz zabiltz?
gu emen sarri bertsoarako
gogo asko gabe gabiltz,
alaixeago bizi izateko
zoria deizula Aritz.

Aita ta amari esanda nago
zer daukaten egiteko,
gauza guztien gañetik beren
semea ondo azteko.
Aitaita nauzun aldetik dizut
zuri ere eskatuko,
batez'e zure gurasoentzat
seme ona izateko.

Ondo izan naiak aitaitangandik
sekula ez du aldegin,
itxura baten bizi izan naian
beti egin det alegin,
seguru asko zurire Aritz
gertatuko zaizu berdin,
ajola gabe gurasoari
negarrikan ez eragin.

Zure etorrera ospatzen gaude
nik al dakit zenbat jente?,
gutxiñaz ere arrera ona
denak egiten dizute.
Aitaita berriz asia zaizu
lendabizikotik eske,
euskaldun zintzo eta leiala
izaten saiatu zaite.

**J.M. Arriola,
1991ko Abendua**

Lazkao txiki il zaigu

Gertatu danak nadukalarik
biotzean ikutua,
bertso batzuek moldatzera naiz
bein da berriz beartua,
Lazkao-Txikik beste guztien
gisara nau agurtua,
jaun da jabeak bere argitan
izan dezala artua.

Nere gisara ari diranak
ez dira gutxi izango,
zan modukoa izan dalarik
nork ez du zerbait egingo?
Argitasunez zein aberats zan
ez degu iñork jakingo,
guztion arte ere ez degu
ark bear beste esango.

Nunbait maiz xamar entzungo zuan
gorputz txikiko izanik,
erantzutean bera etzegen
zerbait esaten etzunik,
iñoiz bertsoan ari zenean
ala non nik entzunik,
metruen bidez ez dala neurtzen
gizonen aunditasunik.

Bizi zen arte txikien otsa
franko izan da munduan,
baña aundiak berdintzen zekin
jarri ezkerre onduan,
oartu gera gure artetik
aldegin deigun orduan,
txikia zanak zer neurritako
utsunea utzi duan.

Nik ezin neurtu eta ez esan
aura zertarako zan gai,
ikusten nuan lekuan beti
ikusi izan nun alai,
umore onen almazen bat zan
ortik beti zuan salgai,
saltzeko baño geio zunean
erregalatu ere bai.

J.M. Arriola, 1993

XALBADOR ZAPIRAIN «ATAÑO»

1912. urteko abuztuaren 5ean jaio zen, bederatzietatik seigarren semea izanik eta beste denak bezala, gizonezkoa.

Sei urte zituela ama hil zitzaion eta bere aitak familia aurrera ateratzen egundoko lanak egin zituen. 1954. urtera arte emakumezkorik etzen sartu etxean. Hau gertatu baino lehenago, amona oraindik sasoikoa izanik, hainbat hilabeterako etortzen zen udan baserrira.

Tolare-Berri deitzen zen eskola batetara hasi zen eta maisu-maistrek erderaz hitzegitera behartzen zuten, ikasleek euskara besterik jakin ez arren. Maisua apaiza izanik, urte batzuetara apaiz bidali zuen baina bigarren Filosofia ikasketak bakarrik burutu zituen, ez baitzuen gogoko abadetza.

Soldaduzkara ez zen joan txotx egin zuelako, berak esaten duen bezala 127 lagun geratu baitziren aske. Garai hartan bertsoak idazten hasia zegoen eta taberna eta sagardotegietan kantari ere bai. Euskalzaletasuna berpizten hasia zegoen Errepublikarekin batera, horregatik mitinetan eta ospakizunetan «Gu euskaldunak gera!»> , oihukatuz ateratzen zen jendea. Baina zoritxarrez denbora gutxi iraun zuen, Gerra Zibila piztu baitzen. Beraz, bete-bete harrapatu zuen gerrak eta tartean espetxeratu izatea egokitu zitzaion. «Consejo de Guerra-n» epaileak honela esan omen zion:

- **«Esto es una guerra y sus leyes son severísimas; sólo tomar parte con un arma tiene pena de muerte».**

Xalbadorrek berriz, honela erantzun zion:

- **«Zergatik botoa galdetzen didazu bada, orduan zuk esantako lege zorrotz oyek etzuten agintzen».**

Guda sutu zenean, bederatzi anaiak aitarekin bizi ziren, bi aurrera joan ziren; besteak ordea, garbi ikusten ez zutenez, duda mudan gelditu ziren heriotz eta tiro hotsak zirela medio.

Berehala anai asko espetxeratuak izan ziren ustekabeen. Batzu Errenteriara eraman zituzten, berehala hiru etxeratu bazituzten ere. Salvador eta beste anai bat Ondarretako espetxera eta beste biak berriz, San Kristobalera. Handik hiru urtetara Orduñakoara. Handik hiru urtetara utzi zuten aske, San Pedro goiz batean hain zuzen.

Espetxetik aske gelditu bezain laister, lan bila hasi zen anaiarekin batera. Altzako «Refinería de aceite» zeritzon lantegi txiki batean hasi ziren. Epe motxera porrot egin zuenez, lanik gabe gelditu ziren, baina berehala harrobi batean hasi ziren. Sorte onetik batere eduki ez zuenez, leherketa baten ondorioz, anaia hil zitzaion. Hau dela eta minberaturik, eta egundoko zasztada suertatu zitzaiolarik, Zangotzako Konbentuan frantziskano bezala sartu zen. Handik Lekarotzera (hamabost urte igaro), Hondarribira (3 urte), Donostiara (6 urte) eta berriro gaur arte Hondarribira, azkeneko 21 urteak han igaro dituelarik.

Donostian zegoen bitartean, egundoko bertso-paper pila argitaratu zituen Basarriren bitartez bai Zeruko Argian, bai egunkarietan. Geroztik ere bertsoak jartzen jarraitu du eta era berean euskararen aldeko borroka bizian.

Lagun bati

Atañoek gerran itxututako lagun bati jarri zizkion bertsoak dira hauek.

Lagun maitea, urteak dituk
itxua bizi aizela,
bertso txar auek bialtzen dizkit
oroimengarri bezela,
berdin bazekit ama gaixoak
kantatuko dizkikela,
jakin dezaken oraindik ere
itzaz oroitzen naizela.

Soldaduzkara deitu iñuten
argi biali iñun amak,
andik itxua biurtu intzan
gero amarentzat zamak,
ik maite orrek geroztik illun
negargarria daramak,
amaika gazte ondatutzeko
sortu zizkitek armak.

Pakean bizi giñun guziok
ez un gudate ordua,
baña norbitek egin zin iri
bixta kentzeko modua,
orren gazterik illun eraziz
betiko ire mundua,
ajola nori, aintzat artuko
ote ditek soldarua?

Betiko ire begietara
ixuri ditek illuna,
geroztik ezin igerri noiz dan
arratsa edo eguna,
geroztik doi-doi ibil bearra
etxe txokoak barruna,
aske ta lasai biziko dek i

ortara utzi iñuna.

Atsegiñez ez det ikusiko
ire amaren musoa,
zoriontsu ez geyago ere
neskatxen irri goxoa,
beste norbaitek zaindu bearra
zedukak ire pausoa,
guda zaleak ez ditek eman
bizi modu eroso.

Ire orde z gaur egingo ditek
len lagun itunak pestak,
zorabiotuz dantza ta oyu
ainbat mutil eta neska,
iretzat bakar bizi bearra
iretzat betiko kezka,
balkoi gañean zer pesta duten
ama xarrari galdezka.

Iretzat jaya edo astegun
noski dena berdintsua,
beste norbaitek izan bearko
ire txangoen maisua,
-Ai zer mutila!- esango ditek
batzuak -baiña itxua-
urrikal itzak entzuten bizi
bearra daukak, gaixua!

Ama maiteak berea au ta
maitatuko au benetan,
baño amarik ez dek izango
betiko mundu onetan,
biotz hori nork poztuko dit nork
lagundu ire penetan?
Enbarazutat artuko aute
abillen leku denetan.

Anayak edo ire arrebak
etxera artzen auanak,
emango dizkik, ori jakiña
bear aiñ jantzi ta janak;
denean traba egingo bai dek
an izango dituk lanak,
etxe galgarri artuko aute
ire inguruko danak.

Mundu ontan ez dek arkituko
amaren maitasun ura,
al balitz bota nairik etxetik
zama txar baten modura,
igatik gaizki dabiltzalako
ire biotzak tristura,
zenbat oldozmen txar ez dizkiken
ekarriko orrek burura.

Ire gordean adituko dek
ire aurkako marmarra,
traste txar baten gisa biziko
aiz txokoan ta bakarria,
ik ezer ezin, dena besteren
eskutik artu bearra,
probatuko dek ondo orduan zer
den itxu baten negarra.

Kanpora illun bizi aiz, baña
ik argi dakak barrena,
begiratu zak barren ortara
eta pixtu sinismena,
seguruago ikusiko dek
ire urteen azkena,
poz orrek asko arinduko dik
mundu ontan ire pena.

X. Zapirain «Ataño»

Espetxetik nere aitari

Xalbador Zapirain gerra garaian asko sufritutako gizona da.

Ondorengo bi bertso sorta hauetan garbi isladatzen da, sufrimentu hori eta bere ondorioak.

Ez gurutze ta ez apaiz joan zan
beste askoren antzera
abertzalea ta bizkaitarra
kristau zintzoa zan bera
oraingo kristau berri auentzat
gu erejeak bai gera
gure Jainkoak artu dezala
betiko atsedenera.

Ez dezu aita sinistuko zuk
baña egi borobilla
amaika aiton egon zitzayon
txutik eziñik otzilla
inbiri pixar bat biotzean
begira, triste ixilla
kajan zijoan aren lekuan
bera ez izana illa.

Bazkal ordua etorri zan ta
turuta otsa, arrantxo
eroskor baitzun mende, presuok
sartu giñan mantxo-mantxo
eguberriak, otordu on bat
nai, aspilla nion jaso
ur epelaren azpian zeuden
egoskor iru garbantzo.

Arratsaldean berriro ere
orma gañean pasian
otordu on bat egin da gero
aberatsaren klasian
bazkariaren antzekoa zan
aparia arratsian
lenteja gordin batzuk ikusi
nitun igari pertzian.

Aspertu nintzan ara onera
joan etorrian ibiltzen
lo egiteko asmoan, noizbait
asi ere mantan biltzen
agure xar bat aldamenean
oñazetan eta iltzen
-Que me muera, que me muera-oyu
ta oyu etzan ixiltzen.

Ori zan aurten nere eguberri
otza, gosea ta laño
Jesus aurtxoa etorriko zan
gizonen artera baño
bere maitasun pozik etzaigu
sartu gauden lekuraño
demoniñoen leizera aita
ez da batere estraño.

X. Zapirain «Ataño», 1.936

Eguberri tristeak

Gabonak, urte guzian ez da
ospatzen alako jairik.
Bazkari on bat agindu zigun
anayak gu poztu nairik
goiz, Ondarretan atean jota
etzun arkitu anairik
trenean pasa gendun eguna
gose paseak, baraurik.

Oraindik illun atera giñan
nora ez jakin, goizean
gure lagunak triste utzirik
Donostiko espetxean
illuntzerako otzak dardaraz
San Kristobalko leizean
gabon tristeak ziran guretzat
ez goxogoak etxean.

Ez dakitenak jakin dezaten
astera noa kontari
emengo berri eman bai diyot
bakarrik dagon aitari
eguberritan bizi gerata
etsai maltzurak zaindari
San Kristobalko arzulu ontan

negarra bada ugari.

Egun sentia baño lenago
leyo txulotik begira
lau lagun maite guardi aurrean
ixilik atera dira
gogor egiten zuten gaixoak
baña joka bultza, tira
noizbait eraman dituzte laurak
espetxeko atarira.

Lau lagun dira joan zaizkigunak
iltzeko elur artera
ayen artean aita xaar bat
bi semerekin batera
nora zoazen ondo zekiten
ta entzuten nai atera
modu orretan zalla da jartzen
jaunaren borondatera.

Gorrotoz, beren aurrean artu
ayek ziran erasoak
joka eraman dituzte andik
laurak iltzera gaixoak
denak larri ta izu, kanpora
erru gabeko usoak
ez gera esku txarretan eror
san Kristobalko presoak.

Bere semeak eusten zioten
aitari eror etzedin
bi seme ayen aita zan, beste
pekaturik etzun egin
gauza zaneke lana ta lana
larogei urte berekin
gorrotoaren mende gabiltza
emen ez dago atsegin.

Ayek artara joaten ikusiz
nork ez du artuko pena?
Elur artean kulparik gabe
besteren eskuz azkena
aspaldi ontan ori jokoa
naparrak ari dutena
jayo berri zan maitasunari
egin zioten omena.

Egun sentian elurra txuri
inguruko arkaitzean
ormatutako arnas jario
lañu itxia leizean
jeiki berrian begiratuaz
kanpo aldera goizean
elur gañera eundoko jela
egin digu arratsean.

Tellatupera zintzilik daude
eundoko jela ziriak
an gabiltzanon buru gañera
ezpata gisa jarriak
gose ta otzak illunpe ontan
preso gaudenon larriak
sarrera onik ez digu egin
aurtengo eguberriak.

Egun sentian mezetarako
dilinka ezkillen otsa
izan ere gaur eguberriak
maitasunaren jayotza
baña emen zerk poztu lezake
preso gaxuon biotza
aingeru kantu orde
goizean gorrotoaren abotsa.

Sinismen bero-beroa nuen
gaur asi naiz naiko nasten
kulparik gabe modu onetan
gure bizia garrazten
gauza berriak ari gera gu
San Krsitobalen ikasten

Apaiz txiki bat falanjekoa
ikusi nuen zegola
erdi jantzian bere alba ta
lepotik txintxil estola
silla txar baten gañean utziz
bere gerriko pixtola
bere atzean geundenon gatik
etzion asko ajola.

Itzaldi goxo bat egin zigun
apaiz falanje petrala
Españiako on eta txarrak
pisuan jarri zirala
txarrak behera ta onak gora
omen ziran bereala
odol geyago ixuri gabe
pake biderik etzala.

Andik atera orduko, jela
beltz artan pasian gero
patio dena lañuz itxia
ortxe amar bajo zero
txistua ere ormatzen zigun
asko ibilli ezker
nolabait gure gorputz oztua
jarriko al gendun bero.

An gabiltzala turuta otsa
ortxe amaikak aldera
kaja zatar bat bizkar gañean
lau gizon pausoz batera

Illa zekarten denon aurretik
eraman zuten atera
lotuta zegon lekutik joan zan
bere askatasunera.

X. Zapirain, «Ataño»

Sukalde utsa

Ustua dagon baserritxo bat
mendi gañetik begira
etxe pilla ta ketan itoa
daukagun beko errira
badauzka intxaurra zar galantak
etxearen jira bira
beti bezela datoz eguzki
printzak tellatu gorriara
iñor ez dator aldapak gora
zapuztutako kabira.

Brasill aldean urteak bota
ondoren mixiolari
bixitatxo bat egin nai nion
nere baserri xarrari
aldapak gora bixi noala
irudimena egari
etxe polita ustua dago
ez da zaunk otsik nabari
nora joan dira nereak, ia
eman nion negarrari.

Ixil ixilik dena ustua
goitik asita beraño
sendi bikaiñ ta zoriontsuaz
gañez ziñana gaurdaño
sukalde xarra uts ta zikiña
izan zanaren erraño
zure barruan triste biotza
eta bekokiya laño
bai bakarrik geratu zerala
maitea ziñugun baño.

Sutondo epel baserritako
babes ta atsedan leku
barrunbe ortan pasa nituen
gozoro amaika negu
iñoiz erdi uts, askotan berriz
geyegi, pillaka, estu
gure inpernu ziñan batzutan
besteetan berriz zeru
ortik igaro giñanok, zure
ortiz goxorik bedegu.

Ementxe bertan esan nion, ni

pralle gazte bizartsua
nola nebilkin, mixiolari
urrun joateko gogua
malkotsu eman ziran gaixuak
munduan azken musua
negarrez asi zitzaidan bertan
etzen ain berri goxua
nere aurrean ez det geroztik
ikusi bera gaixua.

Seask xarrari eragin aziz
nere ama otoitzean
agur Mariak gora zoazen
geldi-geldi arratsean.
-Santa Mariai erantzunaz guk
agur mari bakoitzean
zar eta gazte pake santuan
denak batera etxean
biotza triste daukat au dana
galdu dala oroitzean

Gure sutondo zoragarria
sutautsik ez det ikusten
bere su bumi eta laratza
ortik eraman zituzten
balio zuten puska guziak
joka indarrean austen
gero saltzeko asmoan noski
bere lekutik erausten
ainbat oroitzen sukalde xarra
nola baztertu zaituzten.

Zizaldu txikiz inguratua
emen egoten zan maya
arto aletzen or gure aita
ipurpean arturik laya
billoba gaztez inguratua
or aiton goxo alaya
aruntzko ate atzean berriz
ore maya eta galbaya
gaur dena palta bere barruan
zikin ta lizun usaya.

Zenbat atsegin, zenbat oñaze
etsipen ta buru auste
gure asabak zure barruan
igaro ote dituzte?
Ai! zenbat amets oparo, ondo
bizitzeko zenbat uste
urtien buru azkenik orra
diru pixar baten truke
bakar bakarrik eta betiko
mendiyan utzi zaituzte.

-Ai! Zenbat sendi igarora dan

gaur arte zure barrutik
amets miñetan mendi gañean
jaso ziñuzten ordutik
ayek joaten ziran ta, txandatzuz
zu beste batentzat txutik
zure azkena ere iritxi
sukalde maitea, gaurtik
etzera noski luze egongo
begira mendi gañetik.

Aspalditako zure kondaira
bildu ezker batera
zure barruan gure asabak
itzegin zuten euskera
garai ura joan zan ustelduta
laxter eroriko zera
ori dena eramango dezu
zegorrekin illunera
biotz au triste banoa berriz
emendik Brasil aldera.

Bizi lagunik ez da etorko
berriz gure baserrira
gaurko semeak guri xamarrak
mendiz aspertuak dira
bizitz errexa billatu nairik
joan ziran kale gorrira
alare zaude baserri ori
luzaro txutik begira
ketan itoa, kutsuz usteltzen
ari dan beko errira.

X. Zapirain «Ataño»

MANUEL MATXAIN

Manuel Matxain, Donostiako Aiete auzoan jaio zen 1916. urteko Urriaren 13an. Bertso idazten berandu samar hasi zen. 48 urte inguru izango zituen hasi zenean eta hasera xelege samarra izan zuela esan daiteke. 1965. urtera arte ez omen zuen sekula pentsatu ere horrelako lanetan hasterik. Urte horretan (1.965) apustu bat egin zuen lagun batekin: «Baietz Akademiako premioetara nere bertsoak bialdu», esan omen zion. Esan eta egin. Eta baita bigarren saria jaso ere. Arantzazuko Ama Birjinari jarritako bertsoak ziren.

Baina hori hasera besterik ez zen izan. Gero iladan etorri baitzitzaizkion sariak. Bertsoak, lanetik etxerako bidean bururatzen omen zitzaizkion eta paperera pasatzen zituen gero.

Bertso girotik aparte, Manuelek gehien maite izan duena bolan eta tokan ibiltzea izan da. Tokan sari guzti-guztiak dauzka irabaziak. 75 urterekin Gipuzkoako Txapeldun izan zen Hernaniko taldearekin eta toka dela eta, Japonera ere jon izan da Manuel.

Manuelek bertso-paper ugari jarri baditu ere, asko eta asko galduak dituela esan behar da, agian bertsoen maila eta garrantziari jaramonik egin etziolako. Tamalgarria benetan, Manuelen kategoria hainbat hamarkadetan uka ezina izan baita aditu guztien arabera.

Baina paper gordetzaile kaxkarra bazen ere, memori ikusgarriaren jabe izan da, eta tarteka, aspaldian kantatutako bertsoak ederki gogoratzen ditu. Behin, elizetan mezak euskaraz emateko baimena zabaldu zenean honako hau bota omen zuen:

Bartarratseko amets eder bat
ez det barruan gordeko,
aingeru batek esan dit neri
bere berri emateko.
Gure hizkuntza berdingabe hau
nola ez degu maiteko,
zeruan ere agindu dute
euskeraz hitzegiteko.

1965. urtean hil berria zen Salbatore Mitxelenari jarritako bertso eder hauekin irabazi zuen Xenpelar Saria:

Salbatore Mitxelenari

Ordu pare bat pasatua naiz
ia sinistu ezinda
urrutitikan etorri zaigun
berri triste bat jakinda
mundu ontako uskeriaren
berri ederki zekin da
azken orduak arrapatu du
lana galanki eginda.

Bertso batzutan ezin azaldu
erri oso baten pena
ain bearrezko baigendun emen
Salbatore Mitxelena
bere erritik urruti xamar
iritxiarren azkena
Euskalerrriak ez du aztuko
bein ere bere izena.

Ilabete bat atera zala
gaixo zegoen susmurra
ori ez izan inoiz bezela
kontua edo gezurra
ainbeste bertso ta kanta eder
jarri zun biotz xamurra
ardiak zaitzen zegon tokitik
egin du azken agurra.

Salbatore nik ezagutu nun
Donostiako Aiete-n
aste oso bat igaro baizun
mixio-lanak egiten
bere esanak ai zenbat aldiz
gogoratu zaizkiten!
galtzen dan arte ez da gauz askok
zer balio duen jakiten.

Bere laguna izandu nintzan
orguilu det aitortzea

ez naiz arritzen gure erria
beragatik oroitzea
zuk ezpainetan beti kantua
ta eskutan gurutzea
barrenen berriz asmo bakar bat:
animak zeruratzea.

Kantuan bidez anima asko
zeruratuak dituzu
ta gaur aiekin bat eginikan
atseginean zaude zu
zuk jarritako abesti goxo
«zorioneko Arantzazu»
euskaldunikan bizi dan arte
zerutik entzungo dezu.

Amaika aldiz entzun nizun nik
mundu ontako usterik
baztertu gabe etzegoela
zerua irabazterik
zuk par-irriaz zure bizia
eskeini dezu gazterik
era ortara ez dira iltzen
santu diranak besterik.

Zorioneko esaten zendun
Baltzategiko artzaia
zorioneko mutiko arek
bein entzun zuen kanpaia
zorioneko esaten det nik
gaur Mitxelena anaia
ain maite zendun Ama ikusteko
etorri zaizu garaia.

Nere lagunen kanpai negarrak
gaur entzun ditut ederki
ta urrengoak zeinentzat diran
Jainkoak bakarrik daki
neretzat ere jotzeko ordua
nola ez dagon urruti
egun aretan Jesus maitea
izazu nitzaz erruki!

Beltzez jantzita dago Aizkorri
ixil Urbia-ko gaiña
ez da entzuten urretxindorren
lengo abesti bikaiña
gerta diteke beste batzuek
inguratzea baiña
zeinek alaitu zuen gailurrak
mututu dan orrek aiña?

1967an irabazi zuen berriz Manuel Matxainek Xenpelar Saria. Urte horretan «Che Guevarari» jarritako bertso hauek idatzi zituen:

Che Guevarari

Aita LLano zuk artikulu bat
idatzi dezu lenguan
«Zeruko Argian» etorri da ta
pozik irakurri nuan
«Txe Gebara»ren berri egoki
bertan ematen zenduan
esanaz berak zer ikasbide
guziontzat eman duan.

Lenengo aitak Jaunaren aurka
altxa ziran egunetik
agindu zuan danok ogia
jango gendula lanetik
orretarako ipini zuan
aukera ederra danetik
Adan ta Eba Paradisoan
jarri zituan unetik.

Eguneroko ogian truke
ipini bazuan lana
orain arte nik ondo bete det
berak agindu zuana
aurrera ere saiatuko naiz
egiten bere esana
naiz ta gaizkien ikusi beti
geien egiten duana.

Kristo mundura etorri zala
badira bi mila urte
bein ere baino okerrago gaur
gaudela esango nuke
langile askok irabazia
beren izerdien truke
beste batzuek litxarkerian
geiena gastatzen dute.

Ordua da ta beldurrik gabe
egia esan bear du
kristautasuna geronen kulpaz
ez ote dan asko galdu?
Rusian ere komunismorik
etzan oraindik azaldu
gizonak ditun eskubideak
ez bazituzten zapaldu.

Nagusi batek bere txakurra
Erdi goseak badauka
tripa pixka bat bete artean
gogor egiten du zaunka
janaren partez makil batekin
ematen badio «kanka»
erruki det nik berak lenengo

arrapatzen duan anka.

Txakurren gisa gizona ere
makilaz ibiltzen bada
seguru egon joko duela
berak nora edo ara
pertsona ez dago isiltzerikan
animalien erara
orretxen aurka altxata il da
Amerikan Txe Gebara

Utzi zituen bere guraso
diruak eta karrera
beartsuaren eskubideak
atera nairik aurrera
lagun txar batek galdua baitu
Judasek Kriston antzera
amabi tiro artuta gero
or sartu dute lurpera.

Batzuek ori oso gustora
etzuten ikusten baina
lagun urkoa nork maite zuen
arek maite zuen aina?
ber'eriotzak utzia digu
gaur ikasbide bikaina
zoritxarrean au da munduak
ematen duen ordaina.

Komodidade danak utzita
ortxe mendi tontorrean
ibili zera urte batzutan
oso modu gogorrean
lagun urkoa maitatzea da
gauzik onena lurrean
azken orduan lasai jartzeko
Jaungoikoaren aurrean.

M. Matxain,1967

Manuelek ordea ez zituen bertsoak sariengatik soilik paratzen. Gaia gustokoa zuenean jartzen zen lanean eta gai ugari erabili izan dituela esan behar da. Ugari eta garai haietan gizartean oso txertaturik zeundenak: erlijiozkoak, sozialak, euskararen ingurukoak, pakearenak, sendiartekoak, eta abar luze bat.

Ondoren doakizuen sortan Vaticano 11. Kontzilioak elizaren barruan sortutako aldaketa eta mugimenduak jorratzen ditu Manuelek hamarreko haundian:

Vaticano II. Kontzilioa

Lagun batzuek egin didate
neri batzuetan galde
nola ez dedan emen idazten

gaurko elizaren alde
oien artean egongo dira
gutxienean bi talde
baina guzietan guk laguntzeko
premi galantean daude
apaizak ere ez dira ezer
gure laguntzarik gabe.

Bi mila urte Jesus maitea
jetxi zinala zerutik
zer esanaren faltik ez degu
gizonok izan geroztik
deabruaren antza barrutik
santu itxura kanpotik
lagun urkoak lur jota ere
ez digu guri inportik
gure grina ta bizio txarrak
gelditzen badira zutik.

Aldakuntza asko eginak ditu
urte auetan bizitzak
ta berakin bat aldatu bear
pixka bat gure elizak
sotana kendu galtzak jantzita
ibiliarren apaizak
lengoak dira emen legeak
lengoak Kristoren itzak
emen geiena mudatu dana
dira gizonen egintzak.

Elizan aurka ez det itzikan
dakidala aterako
bataioakin bere seme ni
bein egin nindutelako
baina bagaude katolikoan
izena deguna pranko
apaiz gazteak langilearen
alde asi ordurako
komunistaren izena jartzen
diotenak sekulako.

Oponioa libre da eta
nik emango det nerea
dudan jartzen det egia esan
orrelakoen fedea
pobreen alde itzegiteko
badute eskubidea
ta jakin danok ori ez dala
komunistaren legea
baizikan Kristok berberak emen
ipinitako moldea.

Gauza batzuek aipatu bear
gaur apaizak elizetan
naiz gaizki egon len esandako

kristau batzuen ustetan
gaurko okerrak gaia artuta
asten badira izketan
esaten dute sartzan dirala
politikako gauzetan
elizan esan bear egiak
ezin duanak bestetan

Egiak orain esaten asi
zaizkigu kulpitotikan
orretxegatik daude batzuek
zearo arriturikan
arrazoiakin ez luke inork
egon bear ixilikan
orixe beintzat agintzen dute
gaur Erroma aldetikan
Kriston dotrinaz ibiltzen dana
ez da sartzan politikan.

Gaurko eliza nola dagoen
goimaitasunez beterik
ez du merezi inola ere
laguntzik gabe uzterik
alde batera utzi ditzagun
gure arteko uskerik
politikako kontu oiek ta
gainontzeko umekerik
oiek ez dira egien aurka
dabiltzan batzuk besterik.

Elizak orain agintzen dauzka
gotzai argi ta azkarrak
eta beraiei jarraitu zintzo
apaiz gazte eta zarrak
utzi ditzagun alde batera
ikamika ta marmarrak
bi taldetako apaizak eta
mundu guziko seglarrak
inor bada ta gu gaude emen
ejemplo eman bearrak.

Asmo oiekin asi gaitzen
emendik aurrera behintzat
ejemploakin indartuz beti
esaten ditugun itzak
berdindu bitez gure aurrean
ipintzen diran penditzak
eskandalorik ez beza eman
geiago gure bizitzak
urte alaiak ikusi ditzan
Jesukristoren Elizak.

Ondorengo bertsoak oso gogoko ditu Manuelek. Iñigo eta Ion bere iloben jaunartzeakoak dira. Berak jarritako denak bezala, txukunak eta mamitsuak. Merezi du bai irakurri edo kantatzeak:

Inigo eta Jonen jaunartzea

Kukuan kanta alaiarekin
esnatu naiz gaur goizean
berriro ere, Jaunan laguntzaz,
sartu gera Maiatzean.
Illobatxoan JAUNARTZE ori
gaur degula oroitzean,
neurri gabeko poza nabaitu
det neronen biotzean.

Gaixoaldiak utziak ditut
gaurko egun ontarako.
Eskerrak, Jauna, osasunakin
iritxia naizelako;
merezi baiño askoz gehiago
ematen didazulako,
ta esker txarra zuk onarekin
ordaintzen diguzulako.

Egun aundia dute benetan
gaur gure illobatxuak,
bere besotan artzen baititu
gure Jaungoiko altsuak.
Aitonak berriz, pozaren pozez,
nola jarri ez bertsuak
ikusirikan etxean danok
gerala zoriontsuak?

Iñigo ta Yon, zuek zerate
oso mutiko majuak,
eta gogoan eduki beti
aitonaren kontsejuak.
Beiñere ez maite mundu ontako
aundikeri ta lujuak,
baizik gaixo ta erdi goseak
dabiltzan gizarajuak.

Jauna zuekin edukitzeak
gaur zenbat balio duan,
ori neurtzeko tresnarik ez da
oraindik sortu munduan.
Kristo'n dotriña gure ERRIAN
indartsu zegon orduan,
zorionean, gaur baiño askoz
pake geiago genduan.

Ezpazerate izaten ere
gizon argi, jakintsuak,
gutxienean izan zaitezte
kristau leial da zintzuak;
biotz zabal da lagun maiteak,
ta euskaldun itzekuak,
zuen amatxo eta aitatxo

dituzuten antzekuak.

M. Matxain

Esker onak ematen ongi dakiena dugu Manuel. Eritetxeetan hainbat aldiz egon eta hamabi aldiz kirolfanotik pasea da azken urte luzeotan eta han izandako mediku eta enfermerei jarritako bertsoak dituzue hauek:

Gutxien uste nuan garaian
ernia txar bat atera
amabi egun gaixo egon da
etorria naiz etxera.
Alperkeriak utzi ta artu
ditut luma ta papera
eskertu nairik Residentziko
Mediku ta enfermera.

Len bigarrena zan bezelaxe
orain irugarren planta
gaixo artean ari da artzen
danean fama galanta
ni naiko triste etorria naiz
Residentzia laga ta
ia etxean baiño obeto
bat bertan egoten da ta.

Eskarrrikasko Fani ta Misen
eskerrrikasko Loreto
aingeru batzuk zerate danok
ori badakit zierto
marmarka iñoiz jardunagatik
bi edo iru paleto
zuek gaixoa zaintzen dezute
etxean baiño obeto.

Zuek lanean badaukazute
jakinduria ta maiña
orratz batekin egoki asko
zultatzen dezute zaiña
farmako eta penizilinak
oso onak dira baiña
oiek ez dute balio zuen
irripar goxoak aiña.

Lagun urkoa zuek maitatzen
dezute noski benetan
bere ondoan zintzo egonaz
egunan ordu danetan.
Mediku jaunak lasai lo egin
dezateke bai gauetan
bere gaixoak dauzkatelako
zearo esku onetan.

Perez Iñigo daukate buru

gizon jakintsua bera
ni lau alditan egona naiz ta
ondo ezagutzen gera
beretzat berdin, gibel da saiets
ernia edo ultzera
egun gutxian sendatu eta
baltzen ditu etxera.

Perez Iñigok ba-ditu noski
prueba ederrak emanak,
zer egin ondo jakiten baitu
talentuz osatzen danak.
Arrigarriak dira askotan
egin izan ditun lanak
ori ederki dakigu bere
eskutan jarri geranak.

Bildurrik gabe eltzen diozu
Iñigo jauna lanari
zure laguntza eskeiñi nairik
premian dagon danari.
Zure labanak egiñak ditu
emen zientoka mirari
gure Jainkoak gorde dezala
luzaroan esku ori!

Bere laguna lanerako da
Bereziartua jauna
Euskalerian zear au ere
degu oso ezaguna.
Donosti, kosta, eta Azpeiti
aldean oso entzuna
berari esker lortua baitu
gaixo askok osasuna.

Biak mediku apartak dira
arrigarriak lanean
bat trankil egon diteke oien
eskutan jartzen danean,
berdin gaitzikan ariñenean
edo ta gogorrean.
Itxu itxuan joan oiengana
zedozer datorrenean.

M. Matxain

SEBASTIAN SALABERRIA

Oiartzungo Elbitxuri baserrian jaio zen Sebastian 1915eko Abenduaren 26an. Gerran ibilia eta harrez gero Donostiako Udalarentzat aritu izan da lanean Aieteko ur depositoaren arduradun bezala. Azken urteotan Hernanin bizi da. Bapatean ere kantatu izan du Sebastianek, inoiz Txirritarekin ere bai, baina askoz gehiago landu du bertso-papera bapatekoa baino.

Badu Sebastianek sari bat irabazitako nobela bat idatzia ere. «Neronek tirako nizkin» nobela hain zuzen, eta 1963. urteko Agora Saria jaso zuena. Berak asko maite du bere lan hau eta berarekin izan dugun elkarriketa gehienetan atera da nobelaren gaia.

Bertso-jartzaile bezala, baita gizon bezala ere, sentimendu haundikoa dugu S. Salaberria eta duela 30-35 urte antolatzen ziren bertso-paper lehiaketetan beti aurreko lekuetan azaltzen zaigu.

Xenpelar Sariaren bertso-paperen lehen edizioan (1.962) bigarren izan zen Sebastian, Ama Euskerari jarritako bertso hauekin.

Ama euskerari

Ama Euskera maitagarriya
goratu nai det bertsoan,
anai-arreba biyotzekoak,
saia gaitezen lan ontan;
badakit nola mintzatzen diran
erderaz etxe askotan,
liburu berri onak ipiñi
danok sukalde txokotan,
oitura zarrik gaidu ez dedin
gure lau probintziyotan.

Ama Euskera biyotzekua,
lenago garai batian
oiturak zintzo gordetzen ziran
gure sorterri maitian;
pozez txoratzen egoten ziñan
baratzan lore tartian,
ta gaur negarrez ikusten zaitut
bagiyak bete-betian,
zure malkuak txuka ditzagun
guztiyok saia gaitian.

Ama Euskera, iritxi dira
zuregana egun beltzak,
eta biyotza zulatzen dizu
zuri naigabe zorrotzak;
zure bagiyak poztu eziñik
dauzkagu komeri latzak,
lore mardulak ziran tokiyan
sortu zaizkigu arantzak,
orrelakorik etzun merezi,
Amatxo, euskal baratzak.

Ama Euskera, gertatu danik
guk ezin degu xinistu,
illunperatu zaigun argiya
ez ote liteke piztu?
Gau eta egun negarrez dagon
Ama bear degu poztu,
anai-arreba biyotzekuak,
danok euskeraz jolastu,
seaskatxuan ikasi giñun
lenengo itzak ez aztu.

Ama Euskera, seme-alabak,
jarri nai zaitugu alai,
nork du biyotza ez laguntzeko
negarrez triste dagonai?
Gure lurrian ikusten dira
zenbait arreba ta anai
ikasi duten izkuntz ederra
ez dutela mintzatu nai;
aitak eta amak erakutsiya
etzagun aztu nolanai.

Ama Euskera, zure onduan
billatzen degu atsegin,
al baldin bada zure esanik
ez genduke nai utsegin;
anai-arreba biyotzekuak,
egin dezagun alegin,
gertatzen geran toki guzitan
beti euskeraz itzezin,
ainbat baliyo duan izkuntza
beñere galdu ez dedin.

Ama Euskera, aspaldi xamar
asiya zera erortzen,
ta berriz altxa behar dezunik
etzaizu iruditutzen;
anai-arreba biyotzekuak,
ez gera konturatutzen
Ama gaxua nola daukagun
beti negarrez urtutzen,
ez gera bere seme-alabak
ez badiyogu laguntzen.

Ama Euskera, zuri begira
munduan zenbait euskaldun,
galdetzen degu Ama negarrez
noiz arte egon bear dun;
maite badegu bere malkuak
lenbailen txuka ditzagun,
anai-arreba biyotzekuak
guztiyok egiñik lagun,
antzika dagon ama gaxua
pixka bat poztu dezagun.

Ama Euskera, galdetzen degu
oitura zarrak nun dian,
garai batian goien zeudenak
gaur aurkitzen dira bian;
egun batian erori ziran
batere uste gabian,
eta geroztik ikusten degu
euskaldunen sukaldian,
Ama gaxua nola bizi dan
negarrez bakardadian.

Ama Euskera poztu dezagun
danok alkarri lagundu,
euskal baratza arlote dago,
bear genduke txukundu;
belar onaren tartian txarrak
oso gaizki ematen du,
ona indartzen saia gaitezen,
gaiztua zañetik kendu,
Amak maiteko ginduzke danok
ori egingo bagendu.

Ama Euskera, etzazu uste
biyotz gogorra detanik,
mundu onetan gorrotorikan
iñorentzat ez daukat nik;
lagun urkua maite dezagun,
bestela ez degu gauz onik,
ez det esan nai beste izkuntzak
guretzat txarrak diranik,
erderaz berdin mintza liteke
euskera aztu betanik.

Ama Euskera, bia jo zendun
bein eroritzen asita,
lore tartian goxo zeundena
amildu ziñan sasita;
miñ artzen degu, zuk etzenduan
olakorik merezi-ta,
Euskal herriyan zure malkuak
badatoz alde guzita,
ez ote gera gu esnatuko
Ama ola ikusita?

S. Salaberria,1.962

1963. urtean, bigarren saria eskuratu zuen Sebastianek Ibai-Ertz eta M. Matxainekin batera. «Euskal Herriko ohiturei» paratutako bertsoak ziren:

Jaun Zerukua, otoitz egiten
dizut belaunikatuta,
zure laguntza eman zaiguzun
ain premizkua degu-ta;
ixilik ezin egon naiz gauza
askori begiratuta,
samindurikan iñoiz jartzen naiz
nere buruai elduta,
Euskalerriko oitura onak
galtzen ari zaizkigu-ta.

Zaleturikan bezela negon
bertso berriyak jartzeko,
Euskal Erriyai eskeintzen dizkat
begiyak zabalduzko;
baserritarrak egiñik gaude
kaletarraren antzeko,

lotsaturikan gaude askotan
euskeraz mintzatutzeko,
zer nai dezute bide oberik
oitura onak galtzeko?

Gaur oraindikan euskaldun asko
gaude begiyak itxita,
ia lenbailen zabal ditzagun,
badegu zer ikusi-ta;
baserritarrak bera datozte
mendiyan ezin etsita,
bat baño geiago ikusten dira
erri aldera jetxita,
erderaz nola mintzatzen diran
euskera txartzat utzita.

Arriturikan egoten naiz ni
gazte askori begira,
pake gozua goien utzita
nola datozten errira;
ez luteke, ez, ori egingo
konturatuko balira,
utzi dezagun bide ori ta
guazen guztiyok mendira,
euskal oituran gorde-lekuak
gure baserriyak dira.

Alegiñian saiatzen gera
ustez ondo erakusten,
bañan ez dakit entzule danak
ontzat artuko dituzten;
gaur baserritar asko ari da
bere sor-lekua uzten,
negargarriya dala benetan
ez ote dute ikusten?
Oitura onak nota ez galdu
guk ez badiyogu eusten?

Gure lurrian gertatzen danak
ez nau askorik poztutzen,
zori txarrian ari dira-ta
baserri asko ustutzen,
aiton-amonen otoitz goxoak
eta izkuntza aztutzen;
au guretzako kaltean dala
ez gera konturatutzen,
Euskalerrriya galduko zaigu
ez bagera esnatutzen.

Gaztain, intxaur da sagasti onak
ari zaizkigu urritzen,
eta labore-soro askotan
gaur piñua ugaritzen;
au guretzako aurrerapena
danik etzait iruditzen,

zuaitzarekin bakarrik ez da
gero gizona bizitzen,
baserri asko ustu dirala
ez naiz batere arritzen.

Lanian gogoz saiatutziak
ez du askorik baliyo,
bere izerdiz egindakua
bestek kendutzen badiyo;
aitona batek nere galderai
onela erantzun diyo,
gizarajuak bere begiyak
egiñikan bi erriyo:
baserri asko ustu dirala
piñua dala meriyo.

Zenbait nagusi biotz gogorrek
eziñ ikusi maiztarrik
amaika bider esaten degu
baña alare alperrik:
Zer egin bear dute kalean
ez bada baserritarrik?
Zuaitzarekin estali dute
labore-soro ederrik,
bañan ez dago bizitzerikan
piñuarekin bakarrik.

Baserritarra, langille zera
astean eta jaiean,
bañan alare asko dabiltza
zu oinperatu naiean;
zuaitzen mende jarri zaituzte
mendi, soro, zelaiean,
zenbait gizoni au egin bear
otorduko garaiean:
eskatzen duan janari orde
piñua jarri maiean.

Artzaiak ere larri dabiltza,
erne dauzkate begiyak,
piñuan mende ikusirikan
baserri eta mendiyak,
gogoraturik garai bateko
txara ta baso aundiyak;
aien tartian bizitzen ziran
beorak eta ardiyak,
auentzat ez da gaur errukirik,
galdu dira barrutiyak.

Pizti gaiztuak nola txoriya
uxatzen duan kabitik,
alaxen datoz baserritarrak
eta artzaiak menditik;
samindurikan esaten dute:
Galdu gera oraingotik.
Gauza guztien Jaun da Jabia,
lagun zaiguzu zerutik,

Euskalerriko oitura zarrak
ia jartzen diran zutik.

S. Salaberria, 1963

1964an laugarren suertatu zen «Iturriozko sega apustuari» jarritako bertsoekin, Xenpelar sarian baita ere:

Milla beatzireun irurogei ta
aurten laugarren urtian,
apustu latza ikusi degu
Iturriotz'ko partian;
bi segalari janian zeuden
gutxinez urte betian,
oien barrenak etzeuden lasai
alkar probatu artian.

Ogei ta zazpi egun Agorrak,
azkeneko igandia,
goizean garaiz mendi aldera
abiatu zan jendia;
modu artako giruak ere
gutxitan izaten dia,
otz-bero beldur aundirik etzan,
ezin eskatu obia.

Iritxi giñan Iturriotz'a
asmo au artu gendunak,
eta biotza alaitzen zuan
emengo edertasunak;
amabi milla kristautik gora
eta danak euskaldunak,
maizago egin bear giñuzke
olako elkartasunak.

Ez badegu nai gure izkuntza
eta oiturak galtzia,
gauzik onena dala uste det
mendiz-mendi ibiltzia.
Zer atsegiña Iturriotz'en
oinbeste euskaldun biltzia,
danon zaindari goien degula
Ernio'ko gurutzia!

Sarrerak artu eskuetan da
sartu giñan belazera,
berialaxen aitona zar bi
neregana jolasera:
«Nork irabazi bear ote du?»
lendabiziko galdera;
erantzun nien: «Kezka ortatik
laister aterako gera».

Bi segalari ain umil beren
maixuaren esanian,

segak eskutan artu zituzten
ordua iritxi zanian;
saio latzari ekin zioten
amaiak jo zutenian,
ordubata arte an jardun ziran
gelditu gabe lanian.

Zulaika degu Zarautz'koa ta
Aburuza Oiartzuarra,
biak dirala segalariak
dago aitortu bearra;
motorra duan tresnaren gisa
ebaki dute belarra,
txikiya ona dagola baña
aundiya ere ez txarra.

Irabaztuna Zulaika degu,
jendiak jo dio txalo,
marka polita jarri ote dun
egin degu errezelo;
zortzi milla ta zazpireunekin
berrogei eta lau kilo,
belar-mordu au botako bada
ez dago egoterik lo.

Eun larogei eta amarri
txikiyan alde trabesa,
ori entzunda askok au zion:
«Nai duanak artu beza».
Irabaztuna nor izango zan
asmatzen etzan erreza,
amabi kilo gutxiagokin
gelditu da Aburuza.

Bi gizon bata bestean aurka
segan ziranetik asi,
ez da burruka gogorragorik
Iturriotz'en ikusi;
orrenbeste lan egiten dunak
galtzerik ez du merezi,
bañan jokuak óri du txarra:
biak ezin irabazi.

Bazkal ordua iritxi zan da
abelak zeuden zimurrak,
bañan jendia an etzan egon
jan da edateko beldurrak;
mendi oietan zabaldu ziran
ogi ta ollasko-ezurrak,
egun batzutan etziran gaizki
or goiko artzai-zakurrak.

Iturriotz'en jokatu izan da
makiña bat sega-apustu,
bañan gutxitan ibili dira
orainguan bezin estu;
bietan batek galdu bear du,

ez iñork kopetik beztu,
alkarri eman bostekua ta
gorroto txar danak aztu.

S. Salaberria, 1964

Esan dugu lehentxeago gerran ibilia dugula S. Salaberria. Hogeita bat urte izango zituen soldatu joan behar izan zuenean. Ondoren doazkizuen bertsoak, oinetan hartutako tiro batzuk zirela eta, Iruñeako Hospital Militarrean sendatzen zen bitartean jarritakoak dira:

Amaika bider esan izan det
mutil koskorra nintzala:
ogei bat urte nitunerako
gerra urbilduko zala.
Zoritxarrez bai etorri ere
nik pentsatuta bezela,
ezin ukatu bala tartean
larri ibili naizela,
samindurikan diot gauzarik
nagargarriena dala.

Milla beatzireun ogei ta hamasei-
garren urtean ain zuzen,
Uzta-illaren emezortzian
gerra triste au pixtu zen.
Nik ogei ta bat urte neuzkan da
soldadu berialaxen,
agintariak gogor zioten:
«Fusillak artuta goazen!»
Gaur nik bi oñak osorik neuzkan
ori gertatu ez bazen.

Neronek ere igartzen nion
iritxi zala denbora,
ta larriturik esaten nuan:
«Soldadu joan bearko da».
Eunka mutil gu Donosti'ra,
lenengo Gobernora;
ardien gisa bildu ginduzten
danak alkarren ondora,
gero emendik sarjento batek
Norte'ko estaziora.

Treanean sartu, Aitaren egin,
txorakeriak utzita,
gerrate ontan ilko giñala
baigeunden oso etsita.
Negarrez asi giñan geienok
ezin genion eutsi-ta,
jende guztia kupiturikan
gu ain triste ikusita,
aiek eta gu agurtu giñan
begiak malkoz bustita.

Iritxi giñan Iruña'ra ta
geienak infanterira,
larriagoak ziran batzuek
ta aiek artilerira.
Bertan ikasi instruzioak
eta gero Bitori'ra,
gauz auek nola gertatu diran
zuzen datoz memorira,
nola eraman ginduzten danok
Billarrel'ko mendira.

Martxoko illaren azken aldera
guk lehenengo atakea,
kañoi, egazkin, mortero, fusil,
danak antxe jo ta kea.
Eun bat metro beti aurretik
gure gidari tankea,
egun guztian danok laixterka,
ura orduko nekea!
Pentsatzen gendun berialaxen
egingo zala pakea.

Artu genduan Billarreal da
jarraitu Bizkai aldera,
kontraioak atzeraka ta
gu geienean aurrera.
Bizi giñanak asko zauritu,
iltzen ziranak lurrera;
mendi oietan komeri latzak
ikusiz ibili gera,
ta aizkenean etzan goxoa
Yurre erriko sarrera.

Beste aldetik aitona zar bat
etorri zan guregana,
esanaz nola utsik zegoan
Yurre erri ori dana.
An sartu giñan xinisturikan
gezurti aren esana,
burruka gogor ekin genion
ta lurrera iltzen zana,
berialaxen neuri bi tiro
oin bakoitzetikan bana.

Lagun on batek atera niñun,
ain negon trantze txarrean,
antzika neure zaurietatik
odol ustu bearrean.
Geroxeago ni Bitoria'n
bi medikuren aurrean,
oña moztuta jarri niñuten
oe zuri ederrean,
ta gaur Iruñe'n arkitutzen naiz
ospital militarrean.

Aldamenean dagon batentzat
egoten naiz kupituta,

nor ez litzake urrikalduko
oin biak motzak dita-ta?
Zutik jartzeko esperantzarik ez
orrenbeste sufrituta,
gure Jainkoak bakarri daki
nola gauden geldituta,
geuren sasoirik ederrenean
betiko elbarrituta.

Dotriñak garbi esaten digu,
nai badegu irakurri:
inbiria ta gizon iltzea
nundik zaizkigun etorri.
Kain gaiztoak Abel il zuan,
begira ziozun orri;
baña oraingo gerra triste au
ezberdina izugarri:
anaiak bata bestea iltzen
gorroto gabe alkarri.

Gure aurreko guraso zarrak
askotan esanak daude:
gerrik onena baña pakerik
txarrena degula obe.
Jesus maitea, ordu guzitan
zure bearrean gaude,
eskatzen dizut Zu zeralako
zeru lurren Jaun da Jabe:
pake gozoa eman zaiguzu
odolik ixuri gabe.

S. Salaberria

M^a Dolores Agirrek eskatuta, bere nobelaren saria zela medio, bertsook jarri zituen Sebastianek, 1964. urteko azkenaldean:

Pozaren pozez txorian gisa
astera nua kantari,
bertso batzuek eskeintzearren
nere euskal nobelari;
lurralde ontan izanagatik
idazle onak ugari,
Jaun Zerukuak lagundu dio
eskola gutxi dunari.

Zori gaitzean guraso gabe
gelditu nintzan gazterik,
ta ez det izan askok bezela
nik eskola ikasterik;
garai batean ez nuan uste
ontaraño iristerik:
euskal nobelan lendabiziko
saria irabazterik.

Gazte denboran nik ikasteko
naiz izan gogo berua,

nai ainbat bider ez det zapaldu
ikastola ingurua;
zerbait kostata egiña dago
nere euskal liburua,
gutxi dakinak askoz gehiago
nekatu bear burua.

Oraintxen jartzen diran sariak
ez dira nolanaikoak,
erdeldunentzat erderaz eta
guretzat euskerazkoak;
zazpi idazle izan gera gu
zintzo saiatutakoak,
lenengoa nik irabaztea
nunbait nai zuan Jainkoak.

Agora, asi bear det zuri
esker beroak ematen,
zuk jarri dezun sari ederren
jabe egin naiz-ta aurten;
diru mordoxk'au eskuratuta
zail da ixilik egoten,
danok dakigu bost milla durok
zer poza ematen duten.

Liburu berri honen galdezka
jende askotxo da asi,
eta seigarren bertso onekin
bear det adierazi:
nere nobela nolakoa dan
nai dezutenak ikasi,
librerietan saltzen dituzte
eta lenbailen erosi.

S. Salaberria, 1964

Sebastianek badu alaba bat minbiziak jota hila. Gaixorik zegoenean jarritako bertsoak dira hauek:

Aldi luzean gaixorik dagon Lurdes gure alabari

Guretzat dira larrialdiak
guretzat da gaixotzea,
guretzat dira atsekabeak
baita ere sufritzea.
Gazte batentzat samingarria
da osasuna galtzea,
naigabeturik bizi dan aitak
opa dizu sendatzea
ta pazientziz eraman Lurdes
daramazun gurutzea.

Aspalditxotik dezu alaba
gaitza uxatu eziña,

sendagillea bere aldetik
naiz saiatu alegiña.
Mesede eske gatoz zugana
zeru lurren Erregiña
erruki zaitez gaixoarentzat
ta kendu zaiozu miña,
eskari auxe egiten dizut
Lurdesko Ama Birjiña.

Biotzez maite zaitun zure aita
Ernanin, 1990-2-11

Alaba Lurdes hil egin zen urrengo urtean. Orduan eskeinitako bertsoak ditu beste hauek.

Gure alaba zanari

Ilbeltz illaren ogei ta seia
egun gogoangarria
biotz mindurik dagon batentzat
ez da izan pozgarria.
Gure etxean gertatu baita
ezbear negargarria;
Lurdes maitea iritxi zaizu
eriotz ordu larria:
bertsoen bidez eman nai nuke
alabaren il berria.

Mundu ontako zure bizitza
nola izan dan ain motza
zorianaren ordeztorri
zaizu Lurdes eriotza;
zure adiñik ederrenean
gelditu zera ilotza.
Minberrea da zulatzen gaitun
ain eztenkada zorrotza,
zauriturikan utzi duana
betiko gure biotza.

Usai gozoa duan arrosak
arantzak ere baditu
iru urte ta erdi pasean
ez dezu gutxi sufritu.
Gaubean miñez oeratuta
goizean miñez zutitu,
sendagilleak bere aldetik
alegiñak egin ditu;
eriotzeko azken agurrak
danok naigabetu gaitu.

Zer utsunea gelditu zaigun
ezin det burutik kendu,
len triste bizi bagiñan ere
ara erabat samindu.

Negar sotiñez esaten zidan
Aita nereak egin du;
Gurutze Santuari begira
azken arnasa eman du,
ainbat sufritu erazi dion
minbiziak eraman du

Ain da gogorra gertatu dana
nago ezin sinisturik,
iñolaz ere ezin det kendu
nere barrengo tristurik.
Al degun dana egin diogu
gaixoaz errukiturik,
gaur ez daukagu gelan beretzat
ezertxo ere uzterik
begietatik ixurtzen diran
negar malkoak besterik.

Azken agurra egin diguzu
aingeru baten moduan,
baiña arnasik dedan artean
izango zaitut goguan.
Ta opa dizut Jainko altsuak
artu zaitzala zeruan,
neronek ere auxe eskatu
nai nuke azken orduan:
emen bezela izan gaitezen
Lurdes alkarren onduan.

S. Salaberria, Ernani 1991

JOXE AIERBE IRAOLA (Autobiografia)

Donosti'ko Altza parteko Ubegi baserrian jaio nintzan, 1934. urtean. Baiña nere jaiotetxea, Loiola eta Martutene auzoetatik gerturago dago Altza'tik baiño, Ametzagaiña mendixkaren ego aldeko bizkarrean ain zuzen. Ezkondu ez geroztik, ordea, Loiola auzoan bizi naiz, emaztea eta seme-alabarekin. Ezbear bat izan nuelako medio, gaur egun pensionista banaiz ere, zurgin edo arotza zan nere ogibidea.

Bertsotarako zaletasuna aurrekoengandik datorkit. Aitona zana, amaren aita, bertso zaar ugari zekiena zan eta noiznai kantari asten zan oietakoa, naiz bera bertsolaria ez izan. Ama zanari ere oso atsegin zitzaizkion.

Aitari berriz, etorkiña, Goierriko Gaintza'koa- zer esanik ez. Oraindik ere, bere ia 87 urterekin, konta eziñak dira dakizkian bertso zaarrak. Baiña aitona zanak Bilintx, Xenpelar, Txirrita eta abarrenak kantatzen zituan bezela, aitak, Fernando Amezketarrarenak ditu, batipat, gogozkoenak.

Orrek ez du esan nai aurrena aipatutakoenak eta beste askoren bertsoak ere ez dakizkienik. Bear ba'da, eta arazoizkoa da, Goierri bizi izan zan arte, Fernando'renak ikasteko aukera geiago izango zuan, eta gero, Donosti'ra etorri zanean, inguruko bertsolarienak ikasi.

Orretaz aparte, aita, batpatean ere zerbait moldatzen dana izanik, gure etxean etzan bertso-giro faltik. Batez ere jai egun berezi eta famili edo lagun arteko bazkari eta billeretan, bankete aundirik ez ba'zan ere, bertsozik etzan faltako. Ni berriz, mutilkoskorretan, gustora egoten nintzan entzuten; pozik kantatuko nukenean ere bai askotan, baiña gauza ez. Beraz, arritzekoa ere ez eta, zaletasuna piztua zan nigan ordurako.

Aitak, ortaz oarturik, paperean idazten zizkidan bertso zaarrak, gero, denbora nuanean, ikas nitzan. Eta egia esan, bestetarako ez dakit baiña, artarako artzen nuan denbora. Ikasi ere bai azkar eta ondo, baiña, au desgrazia...! oso kantari txarra izan eta iñoren aurrean kantatzeko abildaderik ez. Lotsatu egiten. Ala ta guztiz, leen esan bezela, egun berezietan aitarekin biltzen geranean, ez du izaten, bata bestearen anparoan, zerbait kantatu arteko onik.

Gero, -edadearen kontuak-, aurpegian bizarra irteten asten zaigunean, bidezko dan bezela, askotan, beste pentsamentu batzuk egiten dira buruaren jabe eta bertsoentzat leku gutxi. Neri ori gertatu zitzaidan beintzat: leengo bertso-egarri edo arra erabat il ez bazitzaidan ere, lozorroan gelditu.

Soldadutza garaian alabaiña, -Afrika'n ain zuzen-, nola-ala bertsoak idazten asi nintzan. Nola-ala diot, izan ere, euskeraz idazten kasik ez bait nekien; tristea dan arren, etxera ere erderaz idazten nuan-eta. Baiña koarteleko gora-beerak eta batez ere, diru premian nengoela adieraziz, tarteka bertsoen bat edo beste bidaltzen nuan etxera. Orrek ilusioa egiten zien, nonbait, gurasoei eta dirua bereala bidaltzen zidaten.

Ura ere pasatu zan, soldadutza alegia, eta andik aurrera bazan aurreragoko lanik; bizimodua bideratzeko, lana gogor egiñaz, sos batzuk aurreratu bearra, motoa ere nai, gero etxebizitza zala, ezkontzeko asmoak zirala eta abar. Bazan, bai, orduan ere galtzak bete lan! Eta jakiña, aldi batean bertso kontuei jaramon geiegirik ez. Ezkondu, berriz, Antiguoz auzoko neska jator batekin ezkondu nintzan eta ez ain gazterik, ordurako ogeitamar urte banituan -eta.

Ezkondu eta andik iru urtera, ordea, alabearrez, 1967. urtean, ezbear gogor bat izan nuala medio bajaran luzaroan egon bearra gertatu zitzaidalako, orduan ekin nion, berriz, bertso idazteari eta, bide batez, euskera lantzeari. Ez leenago bezela eta gutxiagorik ere baiña, lanerako moduan jarri nintzanean, urte batzutan aritu nintzan. Azkenean, ordea, ofizioa utzi bearrean gertatu.

Gero, euskera zerbait menderatzera iritxi nintzanean, erakusten aritu nintzan aldi batean. Irratian ere, asko ez, baiña zerbait ibilia naiz. Gaur egun, zazpi bat urte bai asirik, DIARIO VASCO egunkarian idazten det, tarteka, kolaboratzalle bezela. Bertsolarietako gaiak jartzen ere aritzen naiz tarteka.

Orrela beraz, esan daiteke, ezbearra izan ezkeroztik, gutxi-asko, ez diodala utzi bertsoak idazteari. Eta etxeko giroak sortu arazi zidan zaletasunari esker ezezik, «Basarri» aundiak eta Aita Zabalak, bertsolaritza munduan langille asper-eziñak, badute zer ikusirik. Aseran asko lagundu eta animatu bait ninduten. Zaurituta nengoela Joxe Miel Maiz'ek 1968. urtean Lasarte'ko nazioarteko lasterketa irabazi zuanean jarri nizkion bertsoak, «Basarri'ri» bidalita, egunkarian argitaratu zituanean, etzidan poz txikia eman. Danen bearrean nintzan une artan eta izugarri animatu ninduan. Orduan, batpatean kantatzeko gai ez banintzan ere, idatziz bederen, zerbait egin nezakeala konturatu nintzan.

Bertsolaritza aparte, baditut beste zenbait gauza ere oso gogozkoak; besteak-beste adibidez: nere jatorria gogoan izanik, baserri-giroa, euskera, mendia, pelota, futbola, bonsai-gintza -au oso berria oraindik- eta abar. Aukeraketa bat eginda, noski, baiña orren lekuko dira ondoren datozen bertso saillak. Broma edo umore-girokorik ere aurki daiteke.

Joxe Aierbe

Urumea ibaia

Aurrekaldean zauden ibaia
zurekin nai det itzegin,
Urumea da zure izena
norbaitek nai ba'du jakin.
Zure egoera ikusi eta
biotzean artzen det min,
zuk, berriz, esanai asko baiña
itz bat ere ezin egin,
itza ba'zendu zuri entzuten

gaur ez litzake atsegin.

Ibai maitea iruditzen zait
oso aserre zaudela,
ez bait zaitugu errespetatu
merezi zendun bezela.
Inguratuta begiratu bat
bota zaiogun bestela;
maite zaitugun guztiok pentsa
naigabeturik gaudela,
nik ezagutu zindutanean
etziñan beintzat orrela.

Ura da, berez, munduan izan
leiken gauzik garbiena,
eta ura, zuk Urumea,
leenago zenekarrena.
Jakin nai nuke nor izandu zan
au erabaki zuena:
zure gaiñera ixuritzea
beste iñork nai ez duena,
berez garbia biurtu arte
zikinkeria aundiena.

Loikeria eta pozoiarekin
iñola ezin bizi-ta,
beti-betiko galdu zerala
ni beintzt nago etsita.
Daukazun ustel-usaia eta
kolorea ikusita:
ill ote zeran esango nuke
zerbait esaten asita;
bizirik baldin ba-zaude ere
aurrez lutoa jantzita.

Nun dira antziñan ur garbi artan
zenitun angulatxuak?
Nun dira aingira eder legunak
lupi ta amorrai goxuak?
Orain, bakarrik kutsatutako
korkoi banaka batzuak,
baiña luzaro baiño lenago
galduko dira gaxuak!
Orretarako egin al zitun
gauzak Jangoiko Aaltsuak?

Mutil koskorrak giñan garaiko
gauzak zaizkit gogoratzen,
obeak ala txarrago ziran
ez naiz asiko juzkatzen.
Amaika aldiz zure ertzean
ibiltzen giñan jostatzen,
gaur, berriz, iñoiz zure ondora
ba'gera inguratutzen,
bakardadea eta tristura
besterik ez da somatzen.

Eskola ere, gu, joaten giñan
ibai-ertzetik barrena,
sartu aurretik bertan igaroz
aal zan denborik geiena.
Irtendakoan berriro aruntz
egiñaalean aurrena,
alako zerbait bazuan nonbait
beste ezerk etzuen,
bera zan beintzat orduan gendun
jolas-tokirik onena.

Esaten ari naizen kontuak
ez dira gaur goizekuak,
baiña oriandik aurki daitezke
ala ibilitakuak.
Neroni ere ikusia naiz,
emen, emakumezkuak,
garbikiñikan gabe astinduz
gogotik beren eskuak,
Ibai ontatik etxeratutzen
gobara zuri eskuak.

Aitona zanai entzuna da ta
geroztik daukat goguan;
baserrirako ura ibaitik
guk eramaten genduan.
Orain bezela etxe barruan
etzan izaten orduan;
gizarajoa balegoke,
gaur, begira nere onduan,
arriturikan esango luke:
ez nago leengo munduan!

Mundu onetan aurrerapena
bearrezkoa da baiño,
preziso al zan iritxitzea
iritxi dan lekuraiño.
Komeni zaigun ura egiñez
ajolakabetzeraiño;
gizonak daukan ase eziña
etorri da ontaraiño:
izadiaren edertasuna
ezereztu arteraiño.

Joxe Aierbe, 1979

Real Sociedad'eri

Ostikoketa edo futbola
ez da euskaldun jokoa,
baiña euskaldunen artean askok
degu oso gogozkoa.
Jokatzen ere euskaldunaren
sona da aspaldikoa,
gaur egun degun taldea ere

ez degu nolanaikoa.

Donosti'n dago talde bikain au,
REAL SOCIEDAD izena,
merezi du-ta, oraingo ontan,
goraldu asmoz naizena.
Jakiñik talde au etxeokak
danaosatzen dutena,
esan daiteke bera degula
Estadu mallan onena.

Bertako seme ta euskaldunak,
denak ezpada geienak,
nunai ta beti abertzaleen
kutsua daramatenak.
Dirua baiño aberri auxe
geiago maite dutenak,
beste lurralde danen ixpillu
izan bear luketenak.

Gajate'rekin Kortabarria,
errespetoa jartzeko,
Zelaieta ta Olaizola
iñor ez inguratzeko.
Oso abilla izan bear du
zueri GOLLA sartzeko,
gero Arconada or dago, berriz,
atea zintzo zaintzeko.

Zamora, Diego ta Iriarte
zail da oberik aurkitzen,
iruren arte zelai erditik
jokoa dute zuzentzen.
Kontrarioa zaitu ezezik,
indartsu beti bultzatzen,
sasoi batean daude ta oiek
iñoiz ez dira nekatzen.

Aurre aldeko irukotea
auetxek osatzen dute:
Satrustegi'kin Idigoras ta
Roberto Lopez Ufarte.
Auek indarrez eta maliziz
denak erotzen dituzte.
GOLAK sartzeko Satrustegi, or,
beti erne daukazute.

Ordezko dauden oientzat ere
badet zerbait esateko,
bear danean jokatzeko prest
beti gertu daudelako.
Ez daude geldi besteak baiño
eskasago diralako,
baizik taldea amaikarekin
osatua dagoelako.

Gidari eta erakusleak

zer nolako merituak!
Oiek bai ondo dakizkitela
jokoaren sekretuak!
Sendagille ta laguntzailleak,
berriz, ederki zaituak,
esku onetan daude mutillak
eta or daude frutuak.

Joxe Aierbe, 1979

Txekor zazpikia

Beiak umea laister
egingo omen du,
aitonak esan du,
zer gerta ere, iñor,
ez bedi aldendu.
Une larri aietan,
nola ez lagundu?
Aurreratua dator,
eztabil berandu,
egiten asi eta
ederra egin du!

Denborarekin nago
naiko kezkatuta,
denak kontatuta,
zazpi illabeterik
oraindik eztu-ta.
Miatzen aritu naiz
eskua sartuta,
bizirik dago baiña,
oso estututa,
kontuz, onek laguntzak
bearko ditu-ta!

Emen alperrik gaude
orrenbeste lagun,
zer egin beagun:
bear diran amarrak
prestatu ditzagun.
Argia itzalita
aldegin dezagun,
iñor bixtan ez ba'da
etzango da ordun,
ea guk bitarten
bazkaldutzen degun.

Bazkaltzen asi eta
erdi-bukatuan
giñan momentuan,
orro txiki batzuek
entzun genituan.
Ikullura joan giñan
denok segituan,
txekorra jaioa ta
ia erdi-itan,

lan guztiak bakarrik
egin bai zituan!

Beiak egindakoa
zala nola esan?
Ain txikia bai zan
ao-zulotik aize
arnasa ar zezan.
Baiña bere onera
azkar etorri zan,
txikia izan arren
osasuna izan,
andik bi ordurako
zutikan jarri zan.

Albaiteroa bear
degu zuzenetik,
dei aldamenetik;
baita etorri ere
azkar nunbaitetik:
-Esnea eman baiña,
biberoi batetik.
-Gure etxean ezta
aspaldin ortatik.
Ez baldin ba'dezute,
ekarri auzotik.

Auzoan badaukagu
txit andre leiala,
eta bereala,
berria eman nion
aal nuan bezala:
-Biberoi bat derrior
bear genduala
-Aur txikiren bat jai
al zaizute, ala?
Ez, -esan nion-, txekor
batentzako zala.

Eztakit sinistu zun
nik esandakoa,
ezta arritzekoa,
baiña segituan eman
zidan baiezkoa.
Nunbait izan bear du
nola alakoa,
ezta izango, noski,
gaurko modakoa,
Asier'ek, txikitan,
ibilitakoa.

Manta batez estali
ez dedilla oztu,
eta au ez aaztu:
Amaren esnari
ur pittin bat naastu.
Iru ordutik iru

Ordutara, juntu,
biberokada ori
bearko du ustü;
txikia izatea
beste gauzik eztu.

Sano itxurakoa
da nere ustean,
jaten ikastea:
pentsua eman lasai
azpilla betean.
Nai duan aiña esne
bien bitartean,
pixua kontrolatu
papertxo batean,
kilo bat irabazi
bear du astean.

Aitona zoraturik
dago berarekin,
nola zaindu jakin,
eta ondo konpontzen
dira elkarrekin.
Ikusten duanean
biberoiarekin,
saltoka beregana,
giro da arekin,
eztu ezer jakin nai
beste iñorekin!

Neurriz arkume bat
aiña alde-alde,
zerbait badu alde:
jale izugarria
eta pozik gaude.
Aitonak mantentzen du,
baiña ez debalde.
«Zenbat kostako ote da?»
-egiten du galde-
Iñoiz ez da egingo
berrogei erralde?.

Joxe Aierbe, 1986

Zorigaiztoko gaua

Gertakizun au ez da
iñork asmatua,
edo kontatua,
baizik nere etxean
bertan gertatua.
Gau geiena borrokan
nuan pasatua,
utsa zan irabazi
banu apustua,
galdu ta parregarri

nintzan gelditua.

Kontrarioa ain zan
txiki ta mearra,
baiña bai azkarra:
eltxo edo moskito
ankame kaxkarra.
Astindu arren gogor
nere atzaparra,
ez nuan arrapatu
eta kaka zaarra!
Alu arek ederk
jo zidan adarra.

Borroka aseratik
bear det kontatu,
eltxo bat topatu
gelan da eskobakin
nintzan preparatu.
Iru kolpe tirata
ez nun arrapatu.
itxura danez oso
gaizki apuntatu,
laugarrengoan jo ta
lanpara puskatu.

Lanpara argirik gabe
dinbili-danbala,
eroriko zala
uste nun, zartakoa
ez bait zan makala!
Andreak esan zidan
otsoa bezela:
«Eskoba utzi zazu
iñozo txepela»,
berarekin emango
zidala bestela.

Egindako okerraz
nengon damutua,
eta kezkatua,
lanpara utzi bai nun
dena txikitua.
Baiña ez nun
merezi alako tratua,
ordaindu nun ederki
nere pekatua,
ezer ez bota izan
banu moskitua.

Lanpara artan etzan
argirikan pizten,
moskitoa, konten,
jakinik zer nolako
begiak dituzten.
Guk berriz nun sartu zan
ez gendun ikusten.
Ziur ariko dala
miztoa zorrozten

apustu: ez digula
lo egiten uzten».

«Baietz azaldu laister
oan sartzean,
eta ixiltzean,
berari lo gaudela
iruditutzean.
Geldi-geldirik egon
nunai gelditzean,
jo ta garbituko det
miztoa sartzean;
ara, emen da nere
belarri ertzean».

Andreak: Nun gelditu
zaizun esaidazu.
-Bekokian dezu.
-Nik arrapatuko det
geldirik egon zu.
-Kolpe seko-sekoa
tira ezaiozu.
Illumpetan asmatzen
kosta bear zaizu.
-Nigan ain konfiantza
gutxi al daukazu?

Begiak itxi eta
estu-estu ortzak,
«datorrena artzak,
miña-miñ, moskitoa,
beintzat jota iltzak».
Oietxek nere kiko
esandako itzak;
gortuta utzi nindun
zartakoan otsak,
eta bai kendu ere
kokotzeko otzak.

Moskitoa, jakiña,
etzuan ukitu,
naiz ta ni zuritu,
beeko ezpaiña, dena,
zitzaidan aunditu.
Baiña, eltxoa ere
nola ez larritu,
eta sustoz iltzea
batere ez arritu,
gau artan beintzat etzan
gehiago sentitu.

Joxe Aierbe, 1991

INOZENTZIO OLEA ARIZTIMUÑO

(Autobiografia)

Pago aritz ta gaztain
mardulen tartean
Mendarte izeneko
baserri batean
sortu nintzan mundura
Zeraingo partean.
Nere jaiotetxea
beriz ikustean
poz malkoak datozkit
begiak betean.

Zeraingo Mendarte baserrian jaio nintzan 1921 garrengo Abenduaren 28'an. Inuxenteen egunean. Orregatik jarri omen zidaten izena Inozentzio. Bataiatzean egunaren izena jarri zidaten, orduan oitura zan bezela. Aita Mendarteko semea nuan eta ama Segurako Korrale baserrikoa. Nere jaiotetxetik ederki ikusten da. Tontor batean dago eta aspalditxo ustu zan.

Bederatzi senide izan giñan: Bost arreba eta lau anai, azkenengoa ni naizelarik. Mendarten bizi izan nintzan 1950 garrengo Garagarrillaren 10'ean ezkondu eta Legazpin bizitzen jarri nintzan arte.

Emen eman nituan
unerik onenak
nere gaztearoko
pozak eta penak.
Emen egin nituan
ames zoroenak
iñoiz egi biurtu
ezin litezkenak
baiña bizitz au zerbait
gozatzen dutenak.

Aurtzaro alaia izan nuan. Nere amak kanturako zaletasun aundia zuan. Aste egunetan bestela izaten zuan lanik asko gajoak, baiña igande arratsaldetan saiatzen zan alegiña. Elizako kantak izaten ziran, batezere, bere kanta-gaiak eta bertso zaarrak ere bai, baiña sermoi, santuen bizitza eta orrelakoekin zer ikusia zeukaten bertsoak geienetan.

Ni mutil koxkorra nintzala arrebak neska gazteak ziran, eta aiek Bilintxen bertsoak kantatzen zituzten batezere. Anai bat itxua nuan. Jaio eta urtebetera edo itxutua. Ark izaten zuan neri lo artu erazteko kargua. Memori ona zuan eta kanturako egokitasuna ere bai. Pedro Mari Otaño, Bilintx, Xenpelar, Pello errota, Txirrita eta oein bertsoak kantatzen zizkidan seaskari eragiten zion bitartean. Bertso artean azi nintzala esatea ez det uste geiegi esatea izango danik eta bertso-zaletasuna batere oartu gabe sortu zitzaidala esatea ere ez. Nere anai zaarrena ere bertso-zalea da, eta ez zalea bakarnk, bertso-jartzaille egokia ere bai. Orain baiño gazteago zala bertso alai eta polit askoak moldatu izan zituan. Ark erakutsita dakit bederatzi puntuko bertsoa zer dan.

Senidez inguraturik eta aitaren eta amaren babespean joan zan ainbeste oroitzapen gozo utzi zizkidan nere aurtzaroa.

Emen eman nituan
lenengo pausoak
zaindari nituala
nere gurasoak.
Ziran kristau zintzo ta
euskaldun osoak
bi begiak illuntzen

dizkit gaur lausoak,
nik ezin aiengana
luzatu besoak!

Bost urte nituanean asi nintzan Zeraingo eskolan, eta jakiña, leenengo lana erderaz ikastea. Baiña maixuaren semea, Klemente Garin zuan izena bere aitak bezela, oso euskal-zalea zan. Abertzale purrukatua. Ark eman zidan enziklopedia moduko euskerazko liburu bat, neretzat oso argazki politak zituana. Argazki aiei begira eta abar, euskeraz naiko errez irakurtzen nuala jarri nintzan.

Liburu artako euskera guk egiten genduana baiño politagoa zala iruditzen zitzaidan, eta nik uste det orduantxe sortu zitzaidala euskerarenganako maitasuna. Euskeraz idazten berriz, gero memoriz ikasteko bertso zaarrak kopiatuz ikasi nuan, bai bertso-paperetatik eta bai besteei entzunez idatziaz.

Zeraingo eskola utzi eta Seguran praille batzuek zeukaten eskolan asi nintzan. Gero gerra etorri zan. Urrena soldaduska. Iru urte eta bost illabete. Euskera eta bertso kontuentzat naiko etenaldi luzea, baiña pasa zan ura ere.

Soldaduskatik etorri eta bereala Legazpin asi nintzan lanean, P. Etxeberria fabrikan. Urrena, ezkondu eta Legazpin jarri nintzan bizitzen. Ordurako Basarri «La Voz de España» egunkarian eta «Arantzazu» aldizkarian idazten asia zan.

Bertsoak ere jartzen zituan eta irratitik kantatu ere bai. Zerain, Segura edo Zegaman pestak ziranean Basarrik eta Uztapidek egin oi zituzten bertso-saioak etorri zitzaizkidan gogora. Nik ere kantatu nuan bein Zeraingo plazan erritar bat lagun nuala, eta orduan antzeman nion nere buruari, ez nintzala plaza-gizona. Ez nuala balio plazan kantatzeko. Estuasun txarra pasa bainuan.

Nere bertso-zaletasuna etzegoen ordea illa, eta bertsoak idazteari eman nion. Bertsoak barrun dirala ez baita bat lasai egoten. Lantegian Brinkolako Bittor Agirre bertsolaria egin nuan lagun. Ark eta Martin Ugarte «Saletxe» lagazpiar idazleak bultz eginda, «Olerti» bilduman argitaratu nituan bertsoak leenengo aldiz. Bere idaz-lan batean Basarrik naiko ontzat eman zituan bertso aiek. Onekin laiñeza pixka bat artu nuala uste det, eta andik aurrera sarritan jartzen nituan bertsoak. Kantatzeko ez nuan balio baiña, bertsoak egin gabe ezin etsi izaten nuan.

Era askotako gora-berak ikusten ditu gizonak bere denboran, eta milla modutako kezak eta pentsamentuak burruka egiten dute bere barruan. Auei irtera emateko eta ixilik gorde ezin dana esanda lasaitzeko bide egokia eskeintzen dute bertsoak, batezere pentsatzen dana esatea debekatuta dagoenean. Ala gertatzen dan garaiak ere izaten dira.

Doai eder bat badu gizonak
bikaiña artean:bikain
askatasuna, Jaunak emana
biziarekin batean;
mundu guztiak aitortu arren
ori aoa betean,
gizona ez da aske izango
ezjakin dan bitartean.

Piztiak bestek ilda jaten du
ori da dagokiona,
baiña artarako jarria dana,
ez berak derizkiona.
Emen gizona bakarrik degu
gorrotoa dariona,
bere eskuan edukiarren
pakea ta zoriona,
kupira gabe ezerezten du
traba egiten diona.

Batzuek gora igo ziran da
ez dago andik jeixterik
eta ez dute an egoteko
beste iñor dan usterik.
Beekoentzat ez al da emen
morrontza utsa besterik?
Bai ote dago gauza guztiak
dauden bezela uzterik?

Bat edo bestek esan lezake:
«Danok ez gera berdiñak»,
gizaki onak ere badira
makiñabat on egiñak;
baiña begira pikardirako
berekin dituan griñak:
Gerra, zigortze, oiñaztatzeak...
ez gaiztakeri ariñak,
orra or nundik sortu zaizkidan
ain pentsamentu gordiñak.

Baiña bizitza guztia ez da gau illun. Nere bizitza ere ez da ala izan. Egun alaiak eta une gozoak igaroa naiz eta olakoen berri ere eman izan nuan al nuan moduan.

Sobratu ziran ardiki danak
mamiak eta ezurrak,
ondo kenduak dira, nik uste,
alperrik galdu bildurrak.
Ain ziran puska gozoak eta
aragi trontxo samurrak,
zer aparria egingo zuten
artzaiak eta zakurrak.

Bere opizioa
nork ez du jakiten?
An zuzen apuntatzen
guztiak zekiten;
aidean joan edo
egon itxogiten
iñork ere etzuan
kalerik egiten.

Artu ditut amaika
aldagoi ta bisuts
dana egin tximuts,
baiña griña txar onek
berriz putzura bultz.
Tiroa pranko tira,
geientsuenak uts,
andrea sermolari,
ez gaiñera amuts.
Eskupeta xar ori
egin bear det auts.

Ai zazu, artzai sukaldaria:
Nola zaude ain argala?
Ezagun da bai gure moduko
tontuak gutxi dirala.

Sinistu gero oraingo ontan
eskarmintatu gerala.
Aizkor-ondoko aize sanoak
ez du prezio makala.

Ura egur soñua,
dana jo ta garbi,
desegiñak ez dakit
zenbat pizti-kabi;
basurde edo uso,
eper edo erbi,
noiz nai erortzen ziran
tiro batekin bi.

Lana egin eta bertsoak jarri eta noizean bein bertso-jaialdiren bat aurkeztu ere bai, ala zijoan nere bizimodua biotzeko eraso baten ondorioz naiko gaixo-aldi luze batek arrapatu ninduan arte.

Aisa gaixotzen bagera ere
lanak ditu sendatzeak,
amazazpi gau lo egin gabe
nik bezela pasatzeak.
Aiek zatzada, indizio ta
odola ateratzeak!
Oraiñaldian zulo paltarik
ez dauka nere atzeak.

Esan dizuet amazazpi gau
esna pasa nituala,
burutik gaizki zegon bat antsiz
aldamenean nuala.
Baretasuna bear nik eta
aze nolako itzala
larrutik ondo ordaintzen degun
«Seguridad Social»a.

Pasa zan txar-aldi ura ere, eta nere onera netorren bezela bertsoak jartzeari eman nion berriro. Alako batean A. Zavalak galdetu zidan ea prosaz idatziko nuan. Al nuana egingo nuala esan nion, eta ikusiko genduala zer irtetzen zan. Ala asi nintzan «El Diario Vasco» egunkarian idazten.

Zirriborro auek ez nituzke bukatu nai bi gizon biotzez eskertu gabe: Basarri da bat. Irratiz eta bertso idatziz ematen zituan erakutsi aiek oso ondo etorri zitzaizkidan bertsoak jartzeko. Basarri izan da nere maixua, irakaslearen mailla ikasleak arrapatu ez badu ere. Aita A. Zavala da nik eskertu bearreko beste gizona. Ari eskerrak argitaratu zituen Auspoak GOIERRIKO LORAK eta OTEMOTXEKO ARNASA nere bi bertso liburuak.

Bertsolariak ere lagunak izan ditut oso. Ez naiz asiko danak izendatzen. Norbaitzuk aitatu gabe uzteko arrixkua du onek eta ez nuke orixe egin nai. Ala ere, «Iru azpetiarrak» (Agirre, Lazkano eta Lizaso) agurtu gabe ez nuke albotik pasa nai. Pekatu astuna izango litzateke.

Inozentzio Olea

Bertso hauek Xenpelar Sariko sari bat eman zioten Inozentziari. Baina berak esan digunez, azaldu zituenean, zenbaiti gustatu bazitzaizkion ere, beste zenbait apaiz sutan jarri omen ziren; horregatik ez zen inora argitaratzera ausartzen.

Beste norbaitek, berak jakin gabe bialdu, ordea.

Orañ aldian Holandatikan
eltzen zaizkigun berriak,
ez dakit izan ote litezken
danak oso pozgarriak.
Apaizak ere ezkondu-nairik
omen dauzkagu jarriak,
nunbait ez jakiñ ezkon-ondoreni
sortu oi diran larriak.

Nola arraio jo ote ditu
alde ortako aiziak?
Ni bai arritu apaiz jaun oiek
sortu dituzten auziak!
Gorputzak eziñ errenditurik
ote dabiltza guziak?
Lengo indarrik ez al du orañ
Jaungoikoaren graziak?

la urtetan sartua naiz ta
zerbait ikusitakua,
erabaki bat eman nai bada
bear dan bezelakua:
Gorputz onixe etzaio beti
errez ematen naikua,
ezkondu arren bizitza ez da
arrosa kolorekua.

Maitetasuna azaldu bear
nolabait ere elkarri,
baiña aurea goxua bada
atzea mikatza sarri.
Guezko lana nolakua dan
egunez begira jarri,
traba bat kendu al dan moduan
ta zazpi milla ezarri.

Apaiz askotxo aztoraturik
Holandan gaur egunean,
ez jakiñ bati zer datorkion
esosatzen dan uanean.
Ase-eziñak baldin bagera
anka libre degunean,
komeri latzak izango dira
larrak eltzen digunean.

Apaizak ere zalantz-aldiak
nola dituzten izaten,
Aita Santuak epai eman du
argia izan dezaten.
Zenbait kutizi bete eziñak
lanak dizkigu ematen,

baiña andreak ere badaki
ederki ezetz esaten.

Entzun izan det ezkontzerako
jarri bear dala ero,
Holandan ere esaera au
jakingo da onuzkero.
Apaizak ere pasatu bear
makiñatxo bat otz-bero,
konduentzat dauden ordenak
benetan artu ezkeru.

Andreak ez du senarra artzen
beti goxo itzegiñez,
ixilik ere gelditu oi da
eta arpegi muxiñez.
Bere onera ekarri nai, ta
nundikan eldu jakiñ ez,
asmatzen lanak izango dira
naiz eta jakiñ latiñez.

Gure gorputzak ez du izaten
griña bat ere lotirik,
erle-ozkadak artu gaberik
ez du miazten ezirik.
Ezkontzak frutu ematen badu
maitasun-intzez bustirik,
ondorenean izango al da
errezatzeko astirik?

Oartu bitez gure animak
iru etsai dituala:
mundu maltzurra, deabrua, ta
gure aragi argala.
Ezkonduraren irugarren au
txit motz lotu bear dala,
bestela pasa bearko dira
asteen bi ostirala.

Ai, Holandako apaiz maiteok!
Nik ez dakit dakizuten,
emaztearen kargu eginda
gero zer datorkizuten.
Luma goxodun txoriak nola
moko txorrotxak dituzten,
sermoi-egiten aiñako lanak
izango dira entzuten.

Ez izan nigan ezkondu eta
gaitzetsi dedan usterik;
baiña ez dago zenbait kontseju
alperrik galtzen uzterik;
ez det egingo zuek emanak
zeuei eskeñi besterik:
Emen ez dago penatu gabe
zerua irabazterik.

Zigor berria

Inpernutik ditugu
notizi kaxkarrak
indarrak ez daukala
euskera zarrak.
An daudenak izanik
alper ta zabarrak
aztoraturik dauzka
ikasi bearrak.
Etsaien adarrak
eraso zakarrak:
«Makurtu bizkarrak»
Ango karramarrek!
Izorratu dituzte
inpemutarrak.

Inpernuan egon ta
atsegiñ eizean,
oiekin nola joan
bide luzean?
Danak ibilli nairik
bide errezean,
ez euskera artuta
aldatz nekezean,
atseden pozean,
era artezean
gauaz ta goizean.
Mudatu ezean
ondo kiskaldu arte
utzi leizean.

Alperkerian iñor
usteldu ez dediñ
deabruak asmatu
dute zer egiñ.
Jendea astinduaz
sarde zar batekiñ
euskara ikasteko
esan dure gordiñ,
zenbat negar zotiñ!
Deabrueri berdiñ.
Saiatu alegiñ
nai duanak jakiñ,
zigor berriak eman
ez dezaion miñ.

Satanasek esan du
gutxi gorabera:
«Onuntz ez da etortzen
egurastera,
gorputz alper oriei
gusto ematera,
iztar motzei begira

denbora galtzera,
xirri egitera,
baizik penatzera.
Ikasi euskera
bestela labera
alperrik daukazuten
gantzak urtzera».

Luzifer zarra ere
omen dago sutan
naiz losintxa zalea
izan batzutan.
Tenaza gorituak
arturik eskutan
euskaldun alper billa
izkutalekutan,
orma zirriztutan,
asmo bat burutan:
«Sardearen puntan
ea artzen dutan
erre ta kiskaltzeko
sugar loitutan».

Ikasi bear dana
omen da euskera
baiña batzuek ez nai
jarri ortara.
Itzen bat ezin bada
sartu ganbarara
zergatikan estutu,
zertarako ikara?
Ez joan sutara,
or dago erdara,
itz berriak para
ta egiñ algara,
bestela sekulako
galduko zara.

Satanas ta Luzifer
gure kontra bero,
au entzuten genduan
len egunero.
Cervantesen izkuntza
dakigun ezkerro
euskera menderatu
dezakegu gero,
eta onuzkerro
ez bagera ero
lo lasai gauero,
parranda jaiero
eta kondenatzerik
ez det espero.

Inpernuak nor ez du
jartzen kezkatuta,
aditu utsarekin
ikaratuta?

Ez ote giñan bizi
geitxo estututa,
euskara ikasteak
nekerik ez du ta?
Naiz ta narrastuta
dago erreztuta,
inpernuratuta
gaude salbatuta,
prantzeses ere zerbait
badakigu ta.

Inpernuko jauntxoak
poztu gaituztela?
Ondo burugabeak
gera bestela.
Euskara orri buruz
jakin dezatela
ikasi gabe ere
askok dakitela.
Ez jende motela
askok diotela
debalde otela
gutxik daukatela,
zerua inpernuan
bertan dutela.

I. Olea, 1985-8-17

Abertzale gehienei bezala, Euskal indar politikoak bateratu ezinak nahigabe galanta sortzen zion Inozentziari, bertso hauetan garbi erakusten digunez.

Zatiturik

Gaur ere naiko berri illunak
eta ez oso urrundik.
Aspaldi ontan bestelakorik
zabaltzen al da emendik?
Bilbon nabarmen ikusi degu
beste gauz askoren gaindik
alkar artzeko abildadea
palta degula oraindik.

Itxura danez danok nai degu
Euzkadi bat askatua
baiña oraindik geurekin degu
aspaldiko pekatua
gure ideak ez dauzkanari
ezer eziñ barkatua,
erri bezela ondatzen gaitun
seta madarikatua.

Danok agindu naiak sortzen du
makiñatxobat istillu,
begira gure errietako
kaleetan zenbat trillu.
Amaika bider biurtzen gera

gure etsaien jostailu
txit errez izan gindezkeanak
auzokoentzat ispillu.

Gaur arrazoiak gutxi balio,
auxe daukagu gaitz txarra.
Euskalerrian onek sortzen du
burruka egin bearra
eta ez aztu batasunean
dagola gure indarra,
bere bideak urratzeko laiñ
ez bait da gizon bakarra.

Zotz mordoxka bat autsi bearrez
iñoiz gertatzen bazera
banaka artuz daukazu ori
errez egiteko era;
baiña indarrez nai izan arren
zotzak ekarri menpera
sorta batean bilduta ezetz
puskatu danak batera.

Errian ez du pakerik jarri
iñoiz geiegikeriak,
gure artean kaltea pranko
egin du jauntxokeriak
eta arrazoi izan lezake
aldizka gogorkeriak.
Baiña, ez al du gaiña artua
gaur bidegabekeriak?

Morrontz batetik irten eziñik
egonagatik negarrez,
elkarri esku emateko laiñ
ez gera gu zoritxarrez.
Itxumenean eror-zorian
seta gaiztoen indarrez
oartu gabe Madrid aldetik
nola dauden guri parrez.

Ainbeste neke kosta ondoren
erri txikia izana
alkar zapaltzen asten bagera
galdu genezake dana
eta besteak errespetatzen
egin bear degu lana
besteak ere errespetoa
izan dezaten gugana.

Pentsatzen dana azaltze ori
bakoitzarena da baiña
indar galtzea besterik ez da
zatiketaren ordaiña.
Alkartasunak artuko balu
gure erri ontan gaiña

onduantxe bai giñakela gu
beste edozein dan aiña.

Agertu-nai ta agindu naiak
ez gaitzan danok ondatu
pake santuak izan dezala
Euzkadin bere ostatu.
Askatasuna neurritz artu, ta
besteak errespetatu,
onak gerala erakusteko
iñor ez txartzat tratatu.

I. Olea, 1978-11-4

JESUS LETE SARASOLA «IBAI-ERTZ»

Itsasondoko Herriko Etxean jaio zen, 1921eko Abuztuaren 27an. Hamar senideetan gazteena da bera.

Biharamunean bertan bataiatua izan zen, San Agustin egunean. Hortik dator bere izen osoaren zergatia: «Jesus Agustin Karmel».

Baina bere izenik ezagunena «Ibai-ertz» da noski, Oria ibai ertzekoa delako.

Hamalau hilabete zituela «Paralisis Infantil» gaur Poliomieltis bezala ezagutzen dugun gaitzak eraso zion, eta geroztik oinetan tresna ortopedikoen laguntza behar izan du.

Gaur berriz, eta bi erorketa txar jasan ondoren, elbarri aulkian gelditua dago. Ala ere, ederki moldatzen dela esan digu bere emaztearen laguntzaz, hara eta hona berak eramaten omen duelarik autoz.

Emaztea, M^a Karmen Azpiazu Zabaleta da, Ezkioko Santa Luzia bailaran dagoen Miranda Baserrian jaioa.

Hiru seme alaba dituzte: Joxe Mari, Elixabet eta Gurutz.

Bere ogibidea bulegoko lana izan da, hogeita hemezortzi urtetan zehar, berak aitortzen duenez.

Beti bertsolarien inguruan ibilitako gizona dugu; gaiak jartzen edo aurkezten, sariketetan epai-mahaiko bezala, eta hainbat lan mota gehiago egin zituen, herri desberdinetan.

1958, 59 eta 60. urteetan esate baterako, plazaratu gabeko bertsolarien sariketak antolatu zituzten. Eta antolatze lanez gain, epaimahaiko ere izaten zen.

Bertso-paper ugari idatzi du «Ibai-Ertz»ek. Zeruko Argian, egunkarietan, eta beste hainbat tokitan argitaratu izan ditu. Aita Zabalaren gomendioz eta Auspoaren bidez ere, liburu bat badu argitaratua: «Orrela ziran gauzak» izenburupean.

Jasotako sariak ere ez ditu gutxi izan. 1962. urtean Xenpelar saria irabazi zuen «Pepitari» deitutako bertso sortarekin. Geroztik eta 60. hamarkada osoan zehar, bigarren sariak, hirugarrenak etab. ugari jaso zituen.

Hitz laua ere landu du, «El Diario Vasco» egunkarian batez ere, eta oraindik horretan dihardu.

Bertso-paperik ez du idazten ordea gaur egun, garai batean makala ez zen arren. Berak garbi omen dauka:

- Gaur oso onak daude eta ni bezalakoak ixilik egotea hobe.

Nere astotxo zintzoari

Bertso hauek, bere haurtzaroan, bera elbarria zenez, hara eta hona eramaten zuen astoari jarriak ditu.1965.eko Xenpelar sarian 3. saria eskuratzeko balio izan zioten.

Asto txiki polit bat
izan nun gaztetan,
berak ibiltzen nindun
jai eta astetan.
Beste bat zintzregorik
ez nere ustetan,
alakorik ez dago
seitatik bostetan.

Amalau illabete
nitula jaiota,
«Poliok» utzi nindun
betirako jota.
Geroztik anketatik
gaxorik nago-ta,
emen ibiltzen nintzan
astora igota.

Zazpi urte nitula
eskolara asi,
gurasoen ordena:
«Gogotik ikasi».
Bi oñak elbarri ta
oñez ezin kasi,
astoa izan nuen
lenbiziko «taxi».

Zenbat pagatu nuen
ba-dakit seguro,
etxera ekarri ta:
Dana zazpi duro!
Ta gañean jartzeko
nik milla apuro,
errenditu zedien
kapatu aguro.

Pasta egiña zuen
ark Errota-Berrin,
lendabizi aunditxo
pixun eta neurrin.
Atzez buztaneraño
aurretik belarrin,
berakin gelditzen zan
era parregarrin.

Bigarrena izan zun
neurria artuta,
gelditu etzedien
pastapen galduta.
Duro bat pagatu nun
ala eskatuta,

onekin amar duro
dauzkat gastatuta.

Zazpi astoarenak
zortzi pastarekin,
beste biak nun diran
nai al dezu jakin?
Garbi esango dizut
arrazoiarekin,
aiek gastatu nitun
txikiadorekin.

Oraindik ez dirade
bukatu gastuak,
ez ditut esan kate,
zintxa, kabestruak.
Oek apari, postre,
kafe bat juxtuak,
ara zenbat balore
izan zun astuak.

Kopetakoak ba-zitun
-nun aien berdiñek-?
berari erregali
emanak Martiñ'ek.
Oi azal baten parpall,
txuri, polit; fiñek...
igande ta jaietan
jazteko egiñek.

Illajez beltza zan da
muturrez zuria,
señorita antzera
tipoz dotoria.
Oñezkari bizkorra
jenioz noblia,
nun billatuko nuen
lagun bat obia?

Ezitzea kosta zan
amaika izerdi,
astakumea zan da
ezin egon geldi.
Ipur-saltalaria
andi ta emendi,
gañetik egin nuen
milla zilipurdi.

Pentsua izaten zun
astean bi aldiz,
etzalako nekatzen
geiegi izardiz.
Lenengo ostegunez
igandetan berriz;
arrotu etzedien,
bitan juxtu neurriz.

Udaberrian moztu
ijitoarekin,
zenbat eskatuko zun
Jangoikoak jakin.
Eskatzea libre da
ukatzea berdin,
tratoa zerratzen zan
gero erdiakin.

Mozketa ondorenen
bizkarra orraztu,
olio ta ozpiñez
etzedien oztu.
Ille zarrak kendu ta
astotxo poztu,
alimentu oberik
abereak eztu.

Pasta kentzean beti
pozez zaldaliak,
txalogarriak zitun
ark abildadiak.
Lurretikan altxa ta
astinduz atziak,
laixter uxatxen zitun
liztor da elbiak.

Legorreta'ko Aizpe'n
jaio ta azia,
gero gure etxean
bizitza guzia.
Ementxe izan zuen
bere desgrazia,
San Tomas egun batez
utziaz bizia.

Ara zer bukaera
nere asto fiñak,
beretzako alperrik
ziran medeziñak.
Egiñagatik danok
gogoz alegiñak,
azkenik galdu zuen
tripetako miñak.

Beti portatu ziñan
zintzo eta jator,
neretzat izan ziñan
gutzizko maitekor.
Orregatik zugana
gaur kantari nator,
nere ogibidea
zuri bai dizut zor! !

Jarrialdi polita, hau ere. Garai bateko neska-mutilen arteko harreman mota bat erakusten digute: Baserrian edo kalean bizitzea oztopo izan zitekeen nonbait, zenbaitentzat.

Dena den, berak aitortu digunez, denak ez dira gertatu bezala esaten, irudimenak ere leku dexente du.

Larraitzen izan giñan
aurten San Pedrotan
aurten San Pedrotan,
erromerira joan da
andregai asmotan.
Gauzak irtetzen dira
txit oker askotan,
ori gertatu zaigu
gure aldi ontan,
dana aitortuko det
oraintxe bertsotan.

Tomax nuen laguna
asmo berdiñakin
asmo berdiñakin,
biok bizi bai gera
guraso zarrakin.
Tratatu nai genduen
baserritarrakin,
nekazaritzan gogoz
ari diranakin.
Probetxurik ez degu
oraingo oiekin! ! !

Lendabizi Amari
fedezko bixita
fedezko bixita,
gero andik dantzara
neskak ikusita.
Lagun egin giñuztan
Ana ta Luixita,
gure etxetarako
bikote polita...
Nor etzan gustatuko
izketan asita?

Arratsalde guztian
dantza ta brometan
dantza ta brometan
alaitasuna gendun
geren biotzetan.
Albotik mutil gaztek
dantzako esketan,
neskak berriz ezetza
beren ezpañetan...
Ez giñaden asarre
momentu aietan! !

Dantza saio ondoren
biak konbidatu
biak konbidatu,
ia refresko bana
nai al-zuten artu.
Baietz esan zuten da

ostatura sartu,
arten gure bizpidez
etziran oartu.
Au jakin zutenean
erabak okertu! !

Tomax'ek atera zun
ostatuan itza
ostatuan itza:
«Baserrirako andreak
billatzen gabiltza.»
Ori entzun orduko
neskatx biak mintza:
«Gugatik libre dago
gaur nekazaritza,
tratu ortan gurekin
alperrik zabiltza! !»

«Zergatik ez dezute
baserrirako nai
baserrirako nai?
Biak erantzun zuten
trankil eta lasai:
«Bizitz astuna eta
ainbat zikin usai,
orain arte egiñak
naiko ditugu, bai!
Baserrira ezkondu?
Ez orixe. Ja-jai!!!»

«Aurrerapenak urri
daude baserrian
daude baserrian
eta bizi eziña
dago indarrian.
Nekeaz gañezka ta
dirua neurrian,
atsedenikan ezta
ixtillu gorrian...
Bizitz traketsagorik
ez dago lurrian! !!»

«Etzazutela esan
orrelako itzik
orrelako itzik,
barru ortan ez al-da
bear dan biotzik?
Baserritik kalera
dira ainbat jetxik
orain dabiltzatenak
bizi-bidez etsik...
An ere zakur danak
dabiltza oiñ utsik! !!»

«Amen ez gorrotatu
mendi baserria
mendi baserria,

bera izandu bai da
gure jatorria.
Seme jakintsuk sortu
ditun iturria
orregatikan degu
ain maitagarria.
Baserririkan gabe
zer Euskalerria?»

«Ler-zoriz asko dabiltz
kale bazterretan
kale bazterretan,
aundi naia bai-dago
bere indarretan.
Zenbat sartu diraden
oitura txarretan
eta penagarria
auxen da benetan.
Beste bizitz bat dago
baserri zarretan! !»

Neskatxak utzi eta
berriro etxera,
berriro etxera,
bañan aurrez jun giñan
Ama agurtzera.
Biotzeko otoitzez
gogoz eskatzera:
«Larraitz'ko Ama betor
guri laguntzera
bestela baserria
dijoa galtzera! !»

Ibai-Ertz, 1964

Uztaileko bigarren aste aldera, denon ahotan ibiltzen dira Iruñeako jai ospetsuak.

Ibai-Ertzek, bertako ibilerei, bertsoak atera zizkien. Hona hemen bere burutazioak.

San Permiñak

Berriro eldu dira
aurten San Permiñak
aupa!, lagun piñak,
denok dibertitzeko
propio egiñak.
Ezpazaituzte jotzen
gaitz txar baten miñak,
Iruñara joaten
egin alegiñak,
antxe igarotzeko
une atsegiñak.

Ango musika eta
ango iskanbilla
ura katramilla!

nunaitik sortzen da an
eundaka kuadrilla.
Iñork asi nai badu
alaitasun billa;
Iruña alde ortara
aurten jun dedilla,
etxean ez gelditu
kokil, erdi illa.

Ainbat txurrero eta
kinkallerok berdin
kalearen erdin,
zapi gorriak saltzen
bat apaindu dedin;
zerbait dibertitzeko
erosketak egin,
ordaintzeko garaian
askotxok aldegin,
orrela ospatzen da
Iruñan San Permin.

Plaza Kastillotikan
gero kalejira
jira eta bira,
geintsuenak laister
andikan perira.
Txarlatanei ez egon
aozabal begira,
olakoren ondotik
azkar erretira,
bestela karteristak
saiatzen baitira!

Karterista oriek
geienak plakuak
nere modukuak,
gantzarik gabe egin
baizitun Jainkuak.
«Niki» xaxtar batekin
praka estukuak,
azeituna beltzekin
mantendutakuak,
indarrez urrik baiñan
eskuz lijeruak!

Gaua juergan pasa ta
entzierro aldera
dibertituzera,
nagitutako anak
lijero jartzera;
zezen oiekin baldin
jostatzen bazera,
ipurdik ubelduta
seguru etxera,
alaz guztiaz ere
ez egin atzera.

Ezkondua bazera
andrei ez esan
ariña ez izan
berak kopeta beltzik
zugan jar ez dezan.
Ondo deskantsatuta
etzazu egin lan,
dakartzun baratzurik
ozpiñarekin jan,
«Zer aberi daukatan
erorrek asma zan! !»

Aberiak aberi
zu ez apuratu
ta buruz jokatu,
sendagillearena
azkar presentatu.
«Etxean erori naiz»
ari deklaratu,
erdi txoro zeranik
ez dezan pentsatu,
eta lenepetik
zuk bajak kobratu.

Andrea asten bada
«pestan nola?», galdez,
dena jakin gosez,
kariñoso erantzun
gauz auek esanez:
«Nekaturik nator ni
lengoa ez naiz, ez
dibertsioa urrun
lruñara joanez,
etxean naiago det
biok maitasunez! !»

Mingañez goxo bañan
zuk miña atzean
aulkin exertzean,
ala ere kontentu
ziria sartzean.
Andreak maite zaitu
gogoz biotzean,
zure itz eztitsuak
deklaratutzean,
urrengorako pentsa
San Permin eltzean.

Ibai-Ertz, 1980

GILLERMO ALBIZU LASA

Gillermo Beasaingo Garin auzoan jaio zen 1917ko Urriaren 15ean. Bederatzi senidetatik bederatziak anaiak dira, arrebarik ez dute. Bere jaiotetxean denbora gutxi egin zuen 1920. urtean sendi osoa Urnietara etorri zelako bizitzera. Baina geroztik ere bizilekuz maiz aldatu izan da; Urnietatik Donostiara, Errioxara eta ondoren Tolosara, 1958. urtean.

Tolosan berak lan egiten zuen enpresa tokiz aldatu zuten eta 1966. urtetik aurrera Iruñerrian jarraitu zuen lan berdinean. Geroztik Berriobeitin bizi da.

Bere gaztaroa baserriko eginbeharrak eta bere ogibide nagusi ziren beste lanak tartekatuz igaro zuen. Gizon mugikorra eta gauza berriak probatu zalea dela garbi nabari da, besteak beste bere bizi grina gainezka ikusi ezker.

Orain bizi den etxean, abere ugariz inguratutako dago. Pottokak, ahateak, zakurrak, usoak, denetatik daduzka. Bere sentimenduei dagokienez, amarenganako begirune eta errespeto handia nabari zaio. Aitari, etxeko anaiari eta beste zenbait senitartekoei jarri dizkie bertsoak baina amari jartzeko ausardiarik ez omen du izan.

Bertso munduarekiko harremana sortzeko une beretik izan du. Gabriel, Joxe Joakin eta Joxek, Gillermo irakurtzen hasterako kantatzen zituzten bertso zaharrak eta aitak feritik ekartzen zituen bertso-paperak. Gillermok bertso hauetako asko ikasi zituen buruz. Genobebaren bertsoak bi anaien artean kantatzen hasi eta ama negarrez jarri izan omen zuten, hainbesteraino bizi nonbait bertso giroa. Soldaduzkan idatzi zituen lehenak eta bertsoak jartzen aritu den denbora gehienez Basarrik emandako laguntza asko estimatzen du. Argitaratzen eta idazkera zuzentzen asko lagundu omen zien bere belaunaldikoei.

Bapatean ere aritu da Gillermo. Anekdotak gisa honako hau kontatzen digu:

Soldaduzka garaian Errioxako «Cubanos» tabernan bertsoak hasi eta ia oharkabean, egundoko giroa sortzen genuen. Nagusiak, horren ordainez edo, askoz ardo hobea ematen zigun prezio berdinean.

Bere bertso-paper produkzioa oparora eta bikaina izan da. Gerra osteko garai hartatik hasita ia gaur arte jarraitu du idazten, gai esparru oso zabala erabiliz; hasi amodiozko bertsoetatik eta Golkoko gerraraino, tanteean lan arazoetako grebak, San Ferminak, Mikel Zabaltzaren heriotza, etab. bezalakoei bertsoak paratuz.

1963. urtean Xenpelar Saria irabazi zuen «Txakurkume batí» izenburudun bertso sailarekin. 1965. eta 67. urteetan ere zenbait sari jaso zituen.

Sentimendu haundiz eta oso barnetik idatzitako bertsoak dira hauek. Hemen izena ixilik gordetzen dugun neska bati maitasun deklarazio bat direla dirudi. 1976. urtean argitaratu baziren ere, ia hamar urte lehenago idatzi zituen. Maitasun gaia sarri erabili du Gillermok bere lanetan.

Bertso berriak Naparroa'ko berrio-beiti'n Gilermo Albizu'k jarriak

Triste antzean ikusten zaitut
eta zabilta bakarrik.
Orixen dezu bide onena
ez egiteko okerrik.
Maite dezunik ez al da etortzen,
edo nai dizun jatorrik?
Gustokorikan azaldu arte
etzazu artu senarrik.

Nere laguntxo maitagarria
leiala eta apaiña,
gure Jainkoak eskuz egiña
dirudizun imajiña.
Biotzetikan sentitzen dana
esateko da mingaiña;
sinistu zazu etzaituela
maite iñortxok nik aiña.

Kendutzen eztan irudipena
daukat buruan sarturik;

esan ordua iritsi da ta
ez dago isilik uzterik:
Zu senarraren zale bazera
nik ez daukat emazterik;
alkarrentzako egokigorik
ez derizkiot besterik.

Guraso onen alaba zera
lendik ezagutzen zaitut;
aspalditxoan zure pausoak
izandu dira nik zaituk.
Ori dan bidez, goresmen danak
gaur eman nai dizkitzut;
zintzo ta umilla nola bai zeran,
ortxengatik nai dizut.

Zeiñen bearra eta ona dan
alkarren maitetasuna!
Bera da gure biotzak duan
doairik aberatsena.
Baldin zuretzat ondo ba'dator
neronengandik entzuna
zu izango zera nere andrea,
eta ni zure gizona.

Gai dagoenak maitearentzat
ditun itzak loretuak,
ez du estutzen geroko izate
arantzaz inguratuak.
Bizi osoa eramateko
uztarri bati lotuak,
aldez aurretik, ondo atera
bear ditugu kontuak.

Diruz aberats ez izan arren,
saiatzen danak jaten du;
eta gu ere, tankera ortan,
egin gindezke konpondu.
Nik lan saria ekarri, eta
zuk pamelia mantendu;
Kristandadeko lege santuan,
bear genduke ezkondu.

Orretarako, aldez aurretik,
izketaratutzen asi;
ta bear diran prestamenakin,
egun eder bat berezi.
Sakramentuen bitartez geren
biotzak alkarri josi;
orain daukagun maitasunakin
gero alkarrekin bizi.

Baiña barkatu bear didazu
ezertan ba'det utsegin;
nere zalantzan baldin bazeunden,

nai nizun eman atsegin.
Jarduntziua badegu, eta
argatik dizut itz egin:
denbora jua-da alperrikako
damurik izan ez dedin.

Geren eskuan daukagunakin,
zertako bizi egarriz,
alkarganatzen geran bakoitzan,
batak besteai igarriz...?
Gau illunaren zai egon gabe
abil gaitezen egun argiz;
urrena alkar ikusitzean
itz egingo degu berriz.

DIARIO DE NAVARRA
1976-9-25 - G. Albizu

Hernaniko bere ilobak Valladoliden medikuntza ikasketak egiten ari zela, ikurrina igorritz eta bertsoak eskatuz eskutitz bat idatzi zion Gillermori, eta honek bertsoz erantzun. Argi uzten du hemen Euskararenganako grina eta kezka sakonak dituela.

Batzuk aditu nai ez beraren izenik

Ikurrin gureakin
karta det artua,
irakurri det dana
ondo aztertua.
Gurasoen izkuntza
dezu baztertua,
erdeltasunarekin
zaude uztartua:
utzi dit biotzean
arantza sartua.

Esanez nola dezun
izena aldatu,
bertso batzuek neri
zenidan eskatu.
Orra nere erantzuna,
ez zaitez damutu:
-«Euskerak euskerazko
izenak nai ditu;
izena eta izana;
au ondo aditu!

Ez ba'degu zaindutzen
guk ama euskera,
gu aren egitazko
semeak ez gera.
Zapuztua daukagu;
ain dago minbera!
Auxen, esan nai dizut
gutxi gora-bera:
Izena aldatu arren,
zu lengoa zera.

Valladoli'n dituzu
zeure ikaskintzak.
Oinbeste buru-auste
eztu ikaskintzak!
Nola kendu ditezken
gaixoaren gaitzak:
osatu ditezkenak
eta sendakaitzak.
Euskeraz ez al daude
bear diran itzak?

Euskeran maitasunik
ez ba'zaitzu pizten,
euskal izena artzeko
etzera irixten.
Besteren lapikoan
babarrun egosten,
oso ondo dagonik
ez det nik ikusten.
Asi zaitetz, illoba,
euskeraz ikasten.

Len «Joani» ziñaden
eta orain «Yone»
erriko urteko jaietan,
zure santu egune.
Bitartean, badago
makiña bat une
-neskatx egin zerade,
gaur etzaude ume-
ordurako, idazten
asten zeran xume.

Orain arte entzuna
ez ba'litz naikua,
Yone, aditu zazu
azken aolkua:
ikasitzea dala
bearrenezkua.
Askok dirua dute
beren Jaungoikua;
neretzat, mintzaiera,
danen gaiñekua.

Eta danen artetik
lenengo guria:
Aitor'ek ezpaiñetan
zintzo ibillia.
Ikusiko ba-nuke
arnasik gabia,
illunduko litzake
nere barrunbia;
lorenz jantziko nuke
bere illobia.

Ontaz gogora gaitzan

al degun maizenik:
Europa'n lenengoa
gurea izanik,
batzuk aditu nai ez
beraren izenik.
Ez derizkiot oso
ondo goazenik,
ez baitet uste Euskera
gabe ezer naizenik.

Degun jardun-bidea
guri galerazi?
Geure dan, gure Ama
nai dute ill erazi;
semeengandik ori
ez luke merezi.
Bakoitzak nai duena
dezala berezi:
Euskera ill ezkerro
nik ez det nai bizi».

**PRINCIPE DE VIANA,
Iruñea 1977 - G. Albizu**

Nafarroako Motor Iberican eta Potasas de Navarran, 1973an egindako lanuzte sonatuek beste zenbait lantegitan eragina izan zuten eta Sarrio almagaren langileek ere hobekuntzak lortzeko borroka bide berdina hartu zuten. Gauean zementuzko lur gogorrean kartoi batzuen gainean egoten ziren, eta han bururatutako bertsoak dira. Euskaraz etzekien idazkari batek idatzi omen zizkion makinaz.

1976-77'ko opor-aldian

Gauza guzia ari
da galestitutzen;
lan-saria txikia
zaigu galditutzen.
Gorraiakin nagusik
ez dute aditutzen;
langilleez ez dira
asko kupitutzen.

Kideko bizi mailla
Denentzat jar dedin:
nai dunak txuleta jan,
ta nai dunak sardin.
Guk eskatzen diegu
guztiontzat berdin,
jornalak igotzea
bear dala egin.

Eta berak ematen
digute erantzuna:
Gutxikin geldi bedi
lendikan etzuna.
Nun da giza-biotza
ta nun da zentzuna?
Au al da gure Aita
Santuai entzuna?

Len asko duenari
zertan eman geio?
Ez al giñaden danok
esku utsik jaio?
Mundu ontan bi egun,
eta ainbeste lio?
Pakeak ez al digu
geiago balio?

Joaten geranean
zerbait erostera,
iñork ez tu galdetzen:
Pobrea al zera?
Ez ba'dezu pagatzen
bestean antzera,
ezer ekarri gabe
geldituko zera.

Batean lan egiñaz
geradenak bizi;
ez al degu soldata
berdiña merezi?
Salatari txatxuak
dauzkagu lenbizi;
oiek bear lirake
taldetik berezi.

Naiz izan ministroa
edo ikazkiña,
Jainkoantzat ez al da
gizaki berdiña?
Iñortxok ez daukagu
gerentzako diña:
Guztiok bear degu
norbaitek egiña.

Alkar artu dezagun
goi eta bekoak,
eskola ikasiak
eta gabekoak:
Eskallerak mail danak
nai ta naiezkoak
dituen bezelaxe
gu bearrezkoak.

Gerade ta ez iñor
Sasi izkutuan
nagusiakin asi
bakarrik tratuan.
Utzi nai bai gaituzte
erdi-lumatuan
argatik ez dezagun
etsi segituan.

Orain arte egiñak
dira nai dutena;

gu lasai gaudelako
dadukaten pena!
Oien arrokeriak
laister du azkena,
eman bearko dute
eskatzen zaiena.

Gu ez goaz iñori
ezertxo kentzera;
baizik, arrazoi bidez,
geurea artzera.
Lana egingo degu
betiko antzera,
Nagusi, giza legez
portatzen ba'zera.

Zeuretzat nai ba'dezu
urtabe emankorra,
otseiñentzat etzaitz
izan egoskorra.
Gure egonaldi au
ezta orokorra;
ugazabak nai dunen,
mozten du oporra.

Iruñea, 1976-77
G. Albizu

Gauza jakina da Euskal Herria apustuzalea dela eta gaur ez bezalako arrakasta zutela 60. hamarkadan egiten ziren trabesek. Apustua bukatu bezain azkar jarritako bertsoak dira ondorengo hauek. Orduan jakintzat ematen ziren datu asko ez ditu aipatzen eta gaur, 30 urte geroago, egoeraz jabetzea zailagotzen duten argibide horien faltan, lan honek Gillermoren bertso idazkeraren lekukotasun fidela izaten jarraitzen du.

Tomas'en Apustu sonatua

Euskaldunen arraza
onera nundikan
etorriya dakiñik
ezta oraindikan.
Kabitzako autua,
auxen du lendikan
sortuak geradenak
gu beragandikan,
aiñ pozik amilkan
edo ukabilkan,
ezta besterikan
gure berdiñikan
pakezko burrukaren
zale danikan.

Iñun ezta egiten
emen aiña burruk
eta eraritikan
ainbeste zurrut,
asko irentxitzen dunak
azkenian purrut,
ezertako ez dirala

jexten ditu arrunt,
kixkalduaz barruk
urdaillan enporruk,
bizkortuz diabruk,
ta nolako erruk!
zenbaitek aspertutzen
ditu inguruk.

Ardua irakiñez
asten bada tripan
arin joko dizkitzu
ai zenbait kanpan
mingaiñetik juana
gero ezin arrapan...
gizonaren indarra
ez dago arropan,
zurrutaren kulpan
alkarri ezin opan
saltsan eta tranpan
or dabilta tronpan,
ez nuke sartu nai
olakuen tropan.

Nola ez dakiyela
gainbera iraulka
geiyegi eratian
jira-biraka,
daukan berotasunez
asten da birauka
itzikan baldin badu
Jaungoikuak barka...
naiz egon errenka,
joko du erronka,
loietan arraunka,
dabilzkin lau anka,
aspertutzen dan arte
lurrari muinka.

Irtetzen zaizkan itzak
alako... enbateg!
gaiñez egiten diyo
geitxo erateg.
Ortaratu baño len
konturatu zaitetz,
orain entzungo dezun
arrazoi on batez;
ardo utsan partez
ura naasin bateg
naiz txarrua betez
ez da zure kaltez
bestela obe da zu
lotzia katez.

Ankak moteldu eta
burua arindu
biar bezela itz bat
esan ezin du,

denbora jun da gero
damua artzen du,
obe zan lenagotik
pentsatu bazendu,
amaikak esan du:
Barrendikan min du
zertako samindu?
ondo esamindu
jokatzen dakiyenak
egin izan du.

Esan dan itxurakin
noizik bein aldizka
desapiyoka bati
etorri zaizka,
engaiñuan ziriya
orri sartzen gaiz ta,
sarritan berarekin
gertatua naiz ta,
mutil txarra ez ta,
euskaldunen kasta,
lana egin laz ta,
parranda iñoiz ta,
orrekin konpondutzen
oso errex ta.

Ugartemendia tar
Tomas du izena
luzia ta zimela
ezta gizena,
Urrillaren lauian
apustua izana,
bere kontrariyua
ustez geiyo zana,
egin zuan lana,
berak al zuana,
nai ta ezin juna,
oker au zun dana:
bentaja ematia
biar etzuna.

Tomas'ek neke lanez
du irabaziya
argatikan zebillen
ala... jantziya.
Ardo dexenterekin
betia ontziya
baño bere buruai
etzegon utziya,
korrika eziya,
jeniyo biziya,
badu maliziya,
orrek du graziya,
plazan egin baizuen
nai zun guziya.

Luxuriagan jaiyua

tolosarra berez
korrikan irabazi
duana errez,
zeukan abildadia
ibilli da gordez,
garaiyan agertu
egiña du legez,
bazekiyan aurrez,
miñutuan bidez,
ainbestian baietz?
Nai zun ainbat trabes:
jaso zitun da iñork
zer esanik ez.

Sortaka belarretan
ibilliya etxetik
etorrita etzuan
atera txintik,
emandako itzari
eutsi ziyon zutik,
bere lana egiten
asi zan unetik,
iñalan kolpetik,
alako kopetik,
izardi koipetik,
bota zun gogotik,
apustu ederra zan
ez baizan tranpik.

Miatuko balira
gaztetatik danak
lan askotan irtengo
lirateke onak,
takiyetan badira
oraindik gizonak,
zer egin lezaketen
iñork ez takinak,
baserrin daudenak:
dirade geienak
dauzkaten kemenak
ta beren almenak
agertzia lotsatzen
diran onenak.

G. Albizu, Iruñea

ELKARRIZKETA-TERTULIA

Bertso jartzaile belaunaldi honi buruzko xehetasun guztiak jakiten ahalegindu gara. Liburu zahar, aldizkari, garai hartako bertsozale zenbait, denetara jo dugu, eta baita datu interesgarri pila jaso ere.

Gure protagonistek ere bidea asko erraztu digute; baina liburua amaitutzat eman baino lehen, denak mahai baten inguruan kontu-kontari ikusi nahi genituen, zer kontatua izango zutela zjur baikin.

1993ko Maiatzaren 29rako deitu genituen, larunbata.
Ordua: Goizeko 11ak.

Lekua: E.H.B.E.ko Donostiako egoitza (bilera gela).

Aldez aurretik, Manuel Matxain eta Luis Rezola «Tximela»k ez zirela etorriko adierazia ziguten, osasun arazoak direla eta. Bigarren honen ordezkari gisa, bere bi semeak etorri ziren: Modesto eta Ramon Rezola.

Beste zazpiak, zintzo etorri ziren gure deiari erantzunez, eta inor ez zen esku hutsik etorri. Bazen han bertso papera, argazkia...

Elkarrekin topatzen hastean, oso armoni atsegina sortu zen. Aspaldi elkar ikusi gabekoak eta bazirelako.

Aurpegi alaiak dira nagusi. Berriketarako gogoia ere bai. Atañoen bila, geu joan gara autoz Hondarribira. Bide osoan ixildu gabe etortzeko hainbat kontu eta gehiago ere baduela erakutsi digu, gerra garaikoak batez ere.

Ibai-Ertz, bere emaztearen laguntzaz etorri da. «37 urte zeramatzat beraren mende», esaten du irrifarrez.

Jose Manuel Arriolak, gizon noblea dirudi, serioa. Honek etorri orduko, berak idatzi zuen liburuaren ale bat oparitzen dio EHBERi.

Olea eta Aierbek, gaztexeagoen airea dute, beraien hitzetan eta modaletan, itxura batean behintzat. Elkartearekin ere harreman estuxeagoa dute hauek.

Xebastian Salaberriak ere, baditu hauekin bere historiatxoak amankomunean.

Eta etortzen azkena Gillermo Albisu da. Iruñean bizi denez, Lontxo Aburuzak ekarri du. Ordurako denok eserita geunden eta, gu hainbesteko jendetza ikusita, ez da nonbait oso fio:

- «*Hemen CIAko jendea edo ez da ba egongo*», esaten digu lehenengotik adarra joz.

Denak mahairatuak gaudenez, J.J. Uriak hartzen du hitza gure izenean:

EHBE: Bertsolarien elkarteak, gerra osteko bertso jartzaile belaunaldi horri omenaldi zabal bat egin nahi zion. Horren ordezkari nagusi gisa, zuek izan zarete hautatuak.

Zuen lekukotasuna jasoko duen liburu bat prestatzen ari gara. Horregatik, zuekin hitz egitea beharrezkoa zen, zuen berri ahalik eta egokien jasotzeko. Galderatxo batzuk prestatu ditugu, eta nahi duzuenean hasiko gara.

1. *Olea*: Nik mesede bat eskatuko nizueke. Idatzitako guztia, bai bertso-paperetan eta bai hitz lauan, Euskara herrikoian idatzi izan dut, eta liburuan ere halaxe azaltzea nahi nuke, nere lana behintzat; bestela ez lirateke gure hitzak izango (Besteak ere bat datoz Inozentziorekin).

EHBE: Horretan ez dago eragozpenik. Zuen lanak dauden moduan argitaratuko dira, eta guk idazten duguna Euskara Batuan.

J. Aierbe: Nik badut oroitzapen txar bat gai honetan. Argia aldizkarian azio txar bat egin zidaten. Neri ezer esan gabe, nere bertsoak «H»z idatzi zituzten, eta ez zitzaidan ongi iruditu.

EHBE: Saiatuko gara horrelakorik gerta ez dadin. Eta orain, sar gaitezen gaiean pixkanaka. Lehenengo, zera galdetu nai genizueke:

Nola edo zerk eraginda/bultzatuta sartu zineten bertso munduan?

Ataño: Ni aitak zirikatuta hasi nintzen. Berak ez zekien idazten eta bere bertsoak nik idazten nizkion.

Gerra piztu bitartean, aritu nintzen bertso kantari, zerbait, gutxi bada ere. Gerrara hogeita bi urterekin joan nintzen eta geroztik ez nuen kantatu.

S. Salaberria: Ni gerra denboran hasia naiz. Gerran zauritu egin ninduten eta hospitalean nengoela hasi nintzen. Han idatzi nituen nere lehen bertsoak, hamabi izan ziren, gerrako pasadizoei buruz.

G. Albizu: Nik geldirik egoteko ez nuen balio eta zerbaitetan hasi egin behar. Horixe gertatu zitzaidan. Bertso zaletasun grina bezetorkidan eta giro horretan hazten ari nintzenez...

EHBE: Baina, Urnietan bizi zinela hasi al zinen, edo geroago?

G. Albizu: Batez ere soldaduzkan.

M. Rezola (Tximelaren semea): Nik gauza bat somatzen dut hemen. Denak, soldaduzkan, gerran, kartzelan edo antzera, bakardade bat sentitzean hasiak dira, idazten behintzat.

Ibai-ertz: 1936. urtean, Itsasondon Aberri Eguna ospatzen zen. Bertsotara, Zepai, Txapel eta Artxanberri etorri ziren. Ni, gogoratzen naiz hurrengo egunean haiek egiten zutena egin nahiean nola ibili nintzen, eta bertso-puntuazken lau hitzak berdin bukatzen saiatzen nintzen (ko, ko, ko, ko, ko; tu, tu, tu, tu, tu). Auskalo zer kantatuko nuen, baina nik segi, lotsa askorik gabe.

Lehen Xenpelar Saria antolatu zutenean, ni animatu egin nintzen, bertsoak bidali eta irabazi egin nuen.

Sari bezela, 2.000 pzta. eman zizkidaten, eta haiekin ordulari bat erosi nuen. Oraindik ere ondo dabil gero, pila eta otxokoartorik gabekoa da baina! (Eta eskumuturra jasoaz, bere ordularia erakusten digu).

J.M. Arriola: Nik osaba bat banuen bertsolari ona. Zubeltzu, Itziarko Zubeltzu. Eta handik edo hemendik, hark itsatsiko zidan zaletasuna, ziur naiz.

Tarteka, ni berarekin egokitu eta bertsotan hasten bazen, nik ere, bat edo beste botatzen nizkion; hark bezain dotore ez noski. Baina berak, asko animatzen ninduen: *Aupa motel, hori zegoen tokian, gehiago ere egongo dituk!*

Gerran ibiltzea tokatu zitzaidan neri ere. Aragoien zauritu eta lehenengo Iruñera eta geroago Donostiara ekarri ninduten sendatzera. Hor, Uztapide eta Zepai Benta-Berri izeneko ostatu batean apopilo egoten zirela jakin genuen eta gu modua zen guztietan hurbiltzen ginen haiengana. Han ere, nere zaletasunak indar haundia hartu zuen.

Gero gerra hori bukatu zen eta Arrasatera joan nintzen bizitzera. Eta pixkanaka, han hasi nintzen bertsoak idazten.

1. Olea: Amak sehaskan bertso eta kanta zahar asko kantatzen zizkidan. Arreba zaharragoek berriz, Bilintxen bertso asko zekizkiten, eta maiz kantatzen zituzten. Anaia itxu bat ere banuen. Hark lo hartu arazten zidan egunero sehaskan, eta beti, Txirrita, Xenpelar edo Otañoren bertsoak abestuz.

Txiki-txikitandik, bertso artean hazia izan naiz, beraz.

Eta uste dut, zaletasuna, neroni ohartu ere egin gabe sartu zitzaidala barrara.

J. Aierbe: Nere aita eta aitona oso bertsozaleak ziren eta bertso pila izugarria zekiten buruz. Horregatik, bertsozaletasun giroan hazia naiz. Bapatean kantatzeko ordea, ez nuen balio, eta asko sufritzen nuen.

Gero soldaduzkan, denbora ere izaten duzu eta etxekoei eta abar lehen bertsoak idazten hasi nintzen. Euskaraz idazten asmatzea zen nere lanik haundiena, ez baitziguten erakutsi.

Soldaduzka ondoren, ahaztualdi bat etorri zen, lan istripu bat izan nuen arte. Haren ondorioz, denbora pasa egon nintzen luzaroan eta bertso dexente idatzi nituen.

Euskara pixka bat lantzeari ere ekin nion, alfabetatzeko asmoz. Eta geroztik ez diot idazteari utzi.

EHBE: Zuek batez ere bertso jarrietan nabarmendu zarete. Baina, egin al duzue inoiz bertsoetan bapatean?

I. Olea: Ni tarteka probatu izan naiz, lagun artean e.a. Adibidez, kontatuko dizuet kasu bat:

Soriako Travanca herrira ehizera joan ginen talde bat. Goizeko seietan denok mendira abiatzeko biltzen ari ginela, herriko plazan bertsoetan aritu nintzen.

EHBE: Horrek ere badu bere meritua. Goizean jaiki eta berehala, seietan, eta gainera Sorian.

(Farre algaren artean, denek aitortzen dute Inotzentioren meritua eta kasuaren bitxitasuna.)

Ataño: Gerra bitartean bai. Gero, gerrak ezarri zuen beldurratik, gure etxean behintzat, denok isildu ginen.

S. Salaberria: Gure jardunaldiak sagardotegietan izaten ziren. Donostia inguruan gainera batez ere, Zepai eta beste zenbaitekin. Bein batean, Ibaetako Urresti sagardotegian, Zepaik Frankori egundokoak kantatu zizkion eta norbaitek salatu goardia zibilei. Gero, arazoak izan genituen baina beno, pasa zen hura ere.

J. Aierbe: Ni saiatu izan nintzen etxean aitari kontra egiten, gabonetan... Baina ez, ez zegoen zer eginik, ez nuen balio.

I. Olea: Zenbait une berezitan gertatzen zen. Nik, alabak ezkontzera zijoala esan zidanean, bertso batez eman nion erantzuna. Oraindik ere gogoan daukat:

Diozutenez ezkontzeko
asmoa hartu dezute,
ez uste izan horregatikan
jarriko naizenik triste.
Gure garaian guk ere egin
genduan beste hainbeste
alkar maitatu zazute eta
zoriontsu izan zaitezte.

EHBE: Ederki. Pentsatzen aritu gara, beharbada, izango duzuela zuen bizitzan gertatutako bitxikeria edo anekdotaren bat, hemen idatzita uztea nahi zenuketena.

Ibai-Ertz: 1958-60. urteen inguruan gertatu zen, Ordizian antolatutako lehiaketa haietan. Ordurako, Teodoro Hernandezenak mugaz honutza etortzeko baimena bazuen, eta bertsoak entzutera etorri zen. Ez zegoen oso eroso hala ere, atzeko muturrean eta zutik, ezer ezin ikusirik.

Nik, lasaiago egon zedin, eskenatokira igoarazi eta eserita jarri nuen. Ondorengo egunetan, bertsolaritzaren aitzakian politika zela nere helburu eta arazoak izan nituen frankismoarekin. Denak ez zeuden nere alde, nonbait.

I. Olea: Ni bertsolaritza dela eta ez dela, egun batean hiru afari egina nago.

Loiolara joatekoak ginen gazteen Txapelketa batera epaimahaiko. Ni, etxean afari merienda egin eta Joxe Lizasoren ostatura joan nintzen, bera ere joatekoa zenez, biok han geundelako hitz emanak. Han, bere emazteak, beste afari legea eman zidan, Joxek hala eskatuta.

Gero, Loiolako egin beharrak bukatu genituenean etorri zen ezustekoa: *Lagunok, orain afaria Ilarran daukazue prestatua.* Eta gu, bertsolari eta abar, afaltzera.

Ondoren, Joxeren etxera itzuli ginen berriro. Han, zenbait kafe, kopa eta abar hartu ondoren, bukatutzat eman genuen eguna. Ni etxera joaterako, eguna ederki argitua zegoen.

J.M. Arriola: Bertsoek nor bere ogibidean lagun dezakete. Ni udaltzain nengoela Arrasaten, auzo batean istiluak sortu ziren, eta latzak gainera.

Etxe batera bidea ebakitzeko, auzoko zuhaitz bat bota beharra zegoen eta hauek ez zieten uzten. Auzitara joan eta botatzeko agindu zuen epaileak.

Bota zuten. Baina, besteak, haserre zeuden eta mendekuz ardiei eta ganaduei, kalteak egiten zizkieten (ardi bati mihia moztu, esate baterako).

Orduan, kaltetuak, bide berriaren egileak alegia, nigana etorri ziren. Zerbait egiteko eskatu zidaten, udaltzaina nintzenez, eta auzitarako, ez zegoen froga zehatzik.

Nik orduan, bertsoak jarri nituen gertaerari buruz, eta argitaratu. Ondoren, korreoz etxera bidali ere bai bi aldeetakoei. Eta hantxe bukatu ziren istiluak.

J. Aierbe: Nik soldaduzkan jarritako bertsoak, etxera etortzen nintzenean kantatzen nituen. Gogorrak eta sentikorrak ziren eta etxekoek, amak batez ere, negar egiten zuen. Mesedez isiltzeko ere esan izan zidaten.

EHBE: Zuen lanak non argitaratzen zenituzten?

Ibai-ertz: Zeruko Argian, Basarri bialduta, e.a. Sariketetara ere bidaltzen genituen.

M. Rezola: Aitak kopiak atera inprentan eta saldu egiten zituen. Askotan gu bidaltzen gintuen Donostiara inprentatzeko baimenaren eske.

J. Aierbe: Norbaitek eskatuta ere egin izan ditugu, publiko orokorrari behintzat argitaratu gabe gelditu direnak. Baina geuk argitaratu nahi genituenak, Ibai-Ertzek esan duen bidetik.

R. Rezola: Bertso paperak kalean banatzea, inprentatuta alegia, galera izaten zen beti. Inprenta gastuak... eta gero denak ezin saldu. Uste dut gure aitak azkenean erregalatu egiten zituela gehienak.

EHBE: Garai hartan, Euskal girorik somatzen al zen zuek mugitzen zireten inguruetan?

I. Olea: Nere inguruan behintzat gutxi. Arantzazuko aldizkaria argitaratzen zen, eta Basarri han bertsoak ateratzen hasi zen. Mesede handia egin zuen. Ordura arte, dena lo baitzegoen!

EHBE: Baina Basarri hasi arte?

Denak: Oso motel. Gogoan bazen baina modurik ez.

I. Olea: Gaztea berez, errebelde xamarra da, eta poliki-poliki hasi ziren zenbait euskal mugimendu.

G. Albizu: Sagardotegietako kontuak ziren. Handik kanpo, ezer gutxi. Diktaduraren errepresioa, badakizu. Gaur laguntzen den gauzetan, orduan galerazi egiten zuten.

I. Olea: Legazpian euskara asko kolejioan galdu zen. Dena erderaz erakusten zuten. Pentsa, nere seme alabek ere, ia galdu zuten euskara, nahiz eta etxean ez genien besterik egiten.

J. Aierbe: Gure garaian, inork ez zekien euskaraz idazten. Ez zen motibazio handirik ere. Barrutik indar ikaragarri bat ezean norberaren aldetik, jai zegoen.

I. Olea: Espiritu hura bizi zen. (Ikastolen mugimendua, esate baterako)... Baina ez zen gorpuzten. Eta inolako talde mugimenduetan sartzeko, gaintitu beharreko beldurra haundiegia zen.

EHBE: Bertsozaletasunaz kanpo, zer zaletasun dituzue, zertan pasatzen duzue zuen denbora?

I. Olea: Ehiza. Ni ehiztari amorratua izan naiz beti.

J.M. Arriola: Eskulangintza. Lehengoan, Ibai-Ertzek, egunkarian zera idatzi zuen: gaur inork euritakorik ez duela konpontzen. Eta nik, egunean hiru eta lau konpontzen ditut askotan. Gogokoa dut entretenimendu hori.

J. Aierbe: Nik ere ehiza, zerbait bai. Lehen gehiago orain baino. Gero kirolak: pilota, futbola, etab.

G. Albizu: Ni jauregi batean bizi ez naizen ezkeror, «usoak, zakurrak, abereak... saguak eta arratoiak, nik ez beste guztiak ba dituzte bere arrazoiak».

S. Salaberria: Baratzako lana dut nik gogokoan.

Ibal-Ertz: Apustuak egitea, ez diru askoko apustuak, apustu bitxiak eta xebreak baizik.

EHBE: Omenduak izatea proposatu zaizuenean, zer sentitu edo pentsatu duzue?

J. Aierbe: Nik duela zenbait urte idatzi nuen zerbait. Bertso-jartzaileak aintzakotzat gehiago hartu behar liratekeela. Eta dirudienez iritsi da. Poza eman digu.

Ibal-Ertz: Nik ere egundoko poza hartu nuen.

I. Olea: Poza, bai, zalantzarik gabe. Gure lana aintzakotzat hartua izan dela adierazten baitu honek.

Beldur pixka bat ere bai, bestalde. Gero, ekintzen bidez eskertzeko gauza izango ote gara?

J.M. Arriola: Bai baina, ez al da dejeneratzen joango jai hau? Guk ba al dugu hainbeste merezimendu?

G. Albisu: Bakarrik banitz, ez nuen onartuko. Talde honen barruan bai. Pentsatzen jarrita, gaur hain itzal haundia duen arbola hau, ez al dugu guk altxa denon artean? Ez al dugu gure zatitxoak jarri guk ere?

EHBE: Zalantzarik gabe. Zuei badizuegu zor haundi bat. Dena den, zuen lana, behar bezain baloratua izan dela uste al duzue, orain arte?

J. Aierbe: Nik baietz uste dut. Lehen bertsoak irakurtzeko zaletasun gehiago zegoen, guk gehien idatzitako garai hartan.

I. Olea: Nik ikusi izan dut jendea, egunkaririk bertsoak hartu poltxikoan eta gero ikasten, edo lagun artera eraman eta komentatzen. Horrek asko adierazten du.

R. Rezola: Gaur, txapelketa nagusian eta, belodromoa betetzen da, baina bertsoak ez da irakurtzen, ez behintzat orduan bezala.

J. Aierbe: Aita Zabalak asko lagundu du gure lana argitaratzen eta ezagutu arazten. Jende askorengana iritsi gara, bestela ezingo genuena.

EHBE: Bapateko bertsolariez hitz egin dezagun orain. Gaurkoak ala lehengo bertsolariak? Nortzuk dituzue gogokoan?

I. Olea: Bertso idatzitakoak gaur, landuagoak txukunagoak dira. Baina bapatean garai bateko txispa hura, grazi hura, falta da. Gaurko bertsoak motelagoak iruditzen zaizkit.

J. Aierbe: Lehen ere, bertso txukunak eta zoragarriak baziren: Bilintx, Xenpelar. Eta bapatean Txirrita, etab.

J. M. Arriola: Gauza bat garbi dago: Ikasia izateak abantaila asko ditu. Baina, inoiz entzun dudana bertsoak ederrena, aspaldikoa da, Artxanberrirena.

Ataño: Orain teknikan aurreratu dena bizitasunean galdu da. Xenpelarren bertsoak ditut gustokoen, ez dute gaurkoen inolako inbidiarik.

X. Salaberria: Lehen ahal zutena egiten zuten, nik bezala. Gaur eskoletan teknika lantzeko abantailak daude, eta hor nabarmen aurreratu da.

Olea: Euskara ere moteldu eta artifizializatu egin da. Eta hori nabari da bertsoetan ere. Erderak lehen baino toki gehiago du gaur.

J. M. Arriola: Lehengo bertsolarien izaera, eta bertsoak berak ere, gaur baino narratsagoak eta petralagoak ziren, ene ustez.

EHBE: Gaurko bertsolaritza jarraitzen al duzue?

J. M. Arriola: Bai. Nik bat aipatzekotan, Egaña esango nuke.

EHBE: Egaña edo Txirrita:

(Ez da erantzun garbirik izan, guztiak pentsakor gelditu dira).

J. Aierbe: Garaiko onenak beti du meritua.

I. Olea: Gaur gai abanikoa askoz zabalagoa da. Eta bertsolari asko dira guzti horiek menderatzeko gai. Lehen, elkarri trapu zaharrak ateratzen aparte, gai gutxi lantzen ziren.

EHBE: Garai hartako bertsolaritza ez zen emakumerik. Zergatik uste duzue?

I. Olea: Orduan emakumea ez zen etxetik irteten. Ez zuen ia partaidetzarik gizartean. Ez zen aintzakotzat hartua, ez gizonen aldetik, eta nik esan behar banu, ez beraien aldetik ere.

Ataño: Oso gaizki ikusia izango zen, tabernetan eta ibiltzea. Eta muga hori nork hautsi? Bestela, gaurko gisan, norbait ibiliko zen bertsoetan, ziur. Baina orduan gizonak beren ohiturak zituzten eta emakumeek beste batzuk, oso desberdinak.

I. Olea: Lehen bertsoetan aritzea desonra zen, tabernetan egiten zelako. Eta gehiago emakume batentzat, jendearen ustez, beste bizitza mota bat zegokiolako. Gaur, pixkanaka, hori gaitzen doa, zorionez.

EHBE: Ederki. Mila esker denori. Merezi duzue noski, eta denok bazkaltzera gonbidatuak zaudete. Han jarraituko dugu solasean, aspertu arte.

Alde batetik, ordu atsegin batzuk igaro izanaren poza sentitzen dugu. Bestalde, elkarrizketa hau motz gelditzen den errezeloa ere bai, liburuaren neurriak mugatuko duelakoan.

Badira beste gai asko maisu hauen inguruan jorratzea merezi luketenak; baina horrelakoetan esan ohi denez, «hurrengoan hobeto eta gehiago».

Euskal Herriko Bertsolari Elkarte
Donostia, 1993ko Maiatzaren 29an